ttipi ttapa

473

2008ko ekainaren 26a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



## Patxiku Mitxelena Zubietako alkatea

03

Hirugarren deialdi berezi batean aukeratu zuen Zubietak alkatea: Patxiku Mitxelena. Herri ttikietan auzolana zeinen garrantzitsua den nabarmendu digu.



## Iparraldeko Jokoen azken saioa igandean

37

Iparraldeko Jokoen Torneoaren VIII. edizioa igande honetan bukatuko da Orbaitzetan. Eskualdeko parte-hartzea zabala da: inguruko 16 lagun ari dira lehian.



NAFARROAKO ODOL EMAILEEN XXXI. EGUNA DONEZTEBEN

04

# Urrezko eta zilarrezko odol emaileak omendu dituzte

natan PRES

LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEAREN IZENEAN

## ALTZARIAK
Ordoki Altzariak

## ARGAZKI DENDAK
Oronoz Argazkigintza
Telletxea Argazki denda

## ARROPA DENDAK
Bixkiak Kirol Denda
Deñe Lentzeria
Goiz Argi Moda
Osiña

## AUTOESKOLAK
Lesaka Autoeskola

## BIDAI AGENTZIAK
Barceló Bidaiak

## BITXIKERIAK
Kuttuna
Ortzadar
Txirula Loredenda eta Bitxikeriak

## BOTIKAK
Olga Botika

## ELEKTRIZITATEA
Iñaki Olaizola

## ELEKTROGAILUAK
Kaxerna

## ESTETIKA
Gemma Igarzabal Estetika
Mariam Mendiberri Estetika

## ETXEKO HORNIDURA
Comercial Mª Jesús

## ILEAPAINDEGIAK
Antxordoki Ahizpak Ileapaindegia-Estetika
Maite Igarzabal Ileapaindegia

## JANARIDENDAK
Goiz Alde Janaridenda
Ibaiondo Janaridenda
Iñaki Janaridenda
Maite Arraindegia

## LIBURUDENDAK
Legarra Liburudenda

## MARGOLARIAK
Otxoteko Pinturak

## NUTRIZIOA ETA DIETETIKA
Oreka

## OPTIKAK
Intzuri Optika

## OSTATUAK/KAFETEGIAK...
Atxaspi Hotela
Haizea Kafetegia
Kattu Jatetxea
Txakainlo Aterpea

## ZAPATADENDAK
Txinelka

## ZURGINTZA LANAK
Esther Ateak

ongi pasa sanferminak!!!

## DATUAK...

• Joan den urteko maiatzeko udal hauteskundeetan Zubietan ez zen zerrendarik aurkeztu, ezta urrian egindako bigarren deialdian ere. Hirugarren aukera bat izan zuten abenduan, deialdi berezia izan zen hura.

• Zubietarrek herria gobernatzea nahiko luketen herritarrak aukeratu zituzten, eta horien artean zegoen Patxiku Mitxelena. Bigarren botatuena izan zen bera.

• Lehen ere alkate izandakoa da, eta orain ere bera da alkatea. Berarekin hitz egin dugu.



Argazkia: G. PIKABEA

**Patxiku MITXELENA** *Zubietako alkatea*

# «Jendeak auzolanerako borondate haundia du eta hori garrantzitsua da»

Gurutze PIKABEA

**Zergatik ez du nahi inork alkate izan Zubietan?**

Herri ttiki hauetan alkate izanda ez da etekinik ateratzen. Gauza gutti dago hemen, dirurik ez dago, eta kanpotik ekartzea gero eta zailagoa da.

**Duela urte batzuk ere alkate izandakoa zara. Nolatan sartu zinen alkatetzan?**

Aldi hartan, talde bezala aurkeztu ginen. Orduan ere ez nintzen lehenbizikoa atera, baina nire aurrekoek dimititu egin zuten eta orduan izendatu ninduten alkate. Kasu honetan, berriz, hainbeste bueltaren ondotik, herritarren boto gehien jaso genituenak bildu egin ginen eta azkenean ni atera nintzen alkate.

**Zein dira herri ttikien arazorik haundienak?**

Arazo asko daude. Gauza asko dago egiteko eta ez dago dirurik, eta Nafarroako Gobernuaren aldetik gero eta dirulaguntza ttikiagoak heldu dira. Nik uste dut hori dela hemen arazorik haundiena. Jendeak gauzak egiteko inondik deus heldu ez dela ikusita, ez du alkatetzarako aurkeztu nahi. Kanpotik gauza bat da eta kritikatzea erraza da, baina hemen barrenean sartuta oso bestelakoa da. Gauzak egiteko aukerak dauden ikusi beharra dago.

**«Herri ttiki hauetan gauza asko dago egiteko eta ez dago dirurik, eta Gobernuaren aldetik gero eta dirulaguntza ttikiagoak heldu dira. Nik uste dut hori dela hemen arazorik haundiena»**

**Dirurik ezean, auzolana garrantzitsua izanen da...**

Ekonomikoki Zubieta ez dago hain gaizki, baina auzolana oso garrantzitsua da, gauza asko egiten dira ongi antolatuz gero. Hala eta honela ariko gara, baina jendeak horretarako borondate haundia du eta oraindik ere funtzionatzen du auzolanak. Orain pista batzuetan zementua botatzen ari gara. Herriko ehiztariekin bilkura bat egin genuen, eta eurek auzolanean zementua botako zutela esan zuten, eta horretan ari gara elkarlanean.

**Zein betebehar ditu alkateak Zubietan?**

Beti izaten da zerbait egiteko. Paperak sinatu behar direla edo... Baina herri ttiki hauetan ez dago horrenbesterako lanik. Erretiratua naiz, eta egun gehienetan etortzen saiatzen naiz Herriko Etxera, goizetan. Beste batzuetan ezin izaten dut etorri.

**Zein dira urte honetarako buruan dituzuen proiekturik haundienak?**

Ez dugu inbertsio haundirik aurreikusi. Oraindik sartu berriak gara eta datorren urtean pentsatuko dugu hobeki horretan. Abenduan sartu ginen, beranduegi... Halere, esan beharra dago, sartu ginenean gauzak ongi harrapatu genituela. Zinegotziak ez etorri arren, gu Herriko Etxera ailegatu aurretik alkatea etortzen zen, eta ez dago kexatzekorik.

**Nola ikusten duzu Zubietaren etorkizuna?**

Momentu honetan biztanleria goiti doa; azken urteotan pixka bat igotzen ari da. Gazte batzuk ezkondu eta honat etorri dira eta beste batzuk hemen gelditzen ari dira, eta hori oso seinale ona da.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA
Donezteben egindako Odol Emaileen Egunean oroigarria jaso zuten batzuk eta Adona Nafarroako Odol Emaileen Elkarteko arduradunak ageri dira argazkian, ekitaldian parte hartu zuten udal eta Nafarroako Gobernuko ordezkariekin batera.

# Doneztebeko delegazioan dauden odol emaileak omendu dituzte

## Urrezko bortz eta zilarrezko bederatzi intsignia banatu dira

**Preziatua eta bizitzeko ezinbertzekoa. Horixe da odola. Osasuntsu dagoenaren odolak premian dagoen gaixoari mesede haundia egin diezaioke. Are gehiago, esfortzurik eskatzen ez duen odol tantak bizia salba dezake. Erietxeetan gero eta haundiagoa da odol beharra, eta horretarako, noski, odol emaileak behar dira. Nafarroako Odol Emaileen Elkarteak 30.000 lagun ditu prest ezusteko arazoei aitzin egiteko, eta alde horretatik, zorionez, momentuz ez omen dago eskasiarik Nafarroan. Dena den, duela guttiko kontua da odol bankuan stock faltagatik, hainbat ebakuntza gibeleratu egin behar izan zirela. Hain zuzen, 30.000 lagun horietako 500 bat, Donezteben bildu ziren joan den ekainaren 15ean, Nafarroako Odol Emaileen XXXI. Egunaren harira. Adona Nafarroako Odol Emaileen Elkarteak antolatutako besta izan zen, eta eguna ekitaldiz betea bazegoen ere, zalantzarik gabe, omenaldiak izan ziren ekitaldirik hunkigarrienak. Doneztebeko delegazioan dauden 14 lagunek jaso zuten omenaldia; urrezko bortz intsignia eta zilarrezko bederatzi banatu ziren.**

ttipi-ttapa

Norberaren erabakia da odola ematearena, baina horrek egin dezakeen mesedea ere kontuan hartzekoa da. 18 eta 65 urte bitarteko edozeinek eman dezake odola, 50 kilo baino gehiagoko pisua baldin badu eta osasuntsu badago. Halako egoeran dauden 280 bat lagun daude gaur egun Doneztebeko Odol Emaileen delegazioan. Duela 17 urte sortu zen Doneztebeko ordezkaritza hau eta urteen joanean 60 lagun kide izatetik 280ra igo da.

Aunitz dira lehenbizikoz odola ematera joatean ikara sentitzen dutenak. Baina segidan beldurra galdu egiten dela, eta odola ematea gauza naturala, erraza eta aberasgarria dela erran digute odol emaileek. Horixe kontatu digu Olatz Garmendia Donamariako mojak: *«ni beti beldurtia izan naiz halakoetarako, baina probatuta deus ere ez dela ikusi dut. Odola eman ondotik bizimodu*



## Juan Carlos ARREGI *Odol Emaileen Elkarteko Doneztebeko delegatua*

**Nolatan zabaldu zen Doneztebeko delegazioa?**
1991n zabaldu genuen. Ni Gipuzkoan hasi nintzen odola ematen, baina Donezteben delegazioa irekitzeko proposamena luzatu zidaten. Herritarrekin bilera egin eta horrela hasi ginen. Lehenbizi 60 bat lagun hasi ginen, eta orain 280 inguru gaude.
**Zer egin behar da odol emaile izateko?**
Osasuntsu badago eta eskatzen diren baldintzak betez gero, eskualdeko ordezkariarekin harremanetan jarri behar da, eta odola emateko autobusa honat noiz etorriko den enteratu. Lehenbiziko egunean proba batzuk egiten dira, analisiak, eta arazorik ez badago, hurrengorako deituko dute. Urtean bizpahiru aldiz etortzen da autobusa eta litro erdi baino guttiago kentzen da aldiro.
**Nora doa hemengo odola?**
Normalean bankuan gordetzen da eta eskaeraren arabera, leku batera edo bertzera bideratzen da. Nafarroan badago odola eta hemengo beharrak ase ondotik, ingurura bidaltzen da: Gipuzkoara, Zaragozara... Normalean odolak 35-40 bat egun irauten ditu. Halere, egiten den donazioaren arabera, iraupena ttikiagoa izan daiteke. Plasma donazioa egitean, odola zentrifugatu egiten da plasma kenduz eta orduan hiru eguneko iraupena du odolak. Bertze batzuetan egun bakarrekoa.
**Nolako jarrerarekin hurbiltzen dira odol emaileak?**
Ilusioarekin. Batzuk urduri joaten dira, eta bertze batzuk ohituak gaude. Lehenbizi medikuak azterketa bat egiten du, eta honek odola emateko baimena ematean kentzen da.
**Gazteak odol emaile dira?**
Gero eta gehiago dira. Orain sartzen direnak 18, 19, 20 urtekoak dira eta hori seinale ona da. Izan ere, 65 urte betetzean ezin da odolik eman. Gerta liteke baimena izanez gero, bertze urte batzuz ematea baina normalean 65 urterekin erretiroa hartu behar da.
**Animatzeko mezuren bat...**
Ez da deus ere kostatzen eta borondate pixka batekin aunitz lagun daiteke. Bertzeei on egiteko aukera ederra da.

*«Ez da deus ere kostatzen eta borondate pixka batekin aunitz lagun daiteke»*

*normalarekin segitzen dut».* Bertzeen alde zerbait ona egiteko delako jendeari deia ere luzatu dio Olatzek: *«Bertzeei laguntzeko aukera izanik zergatik ez elkarri lagundu? Inoiz gu ere beharrean aurki gintezke!».* Donezteben bizi den Fermin Jorajuriak ere lasaitasun mezua igorri dio jendeari: *«hagitz erraza da, ez beldurrik izan».* Eta berdin bere herrikidea den Nere Adurizek ere: *«erraza da, eta behintzat froga dezatela».*

### 14 INTSIGNIA BANATU DIRA

Donezteben egin zen Odol Emaileen Egunean, soilik Doneztebeko delegaziokoek jaso zuten omenaldia. Ez zen lehen aldia Doneztebek halako besta hartzen zuela, 1992an ere bertan egin baitzen, delegazioa sortu eta urtebetera. Aurten guztira 14 intsignia banatu dira, urrezko bortz eta zilarrezko bederatzi. Urrezko oroigarria jaso dutenak Jabier Apeztegia (Doneztebe), Gabriel Fuentes (Sunbilla), Jose Ignacio Olazar (Elgorriaga), Mª Jose Otxandorena (Eratsun) eta Juan Carlos Arregi (Doneztebe) dira.

Zilarrezkoa hauek jaso dute: Nere Aduriz (Doneztebe), Maite Etxenike (Sunbilla), Paulino Etxeberria (Arizkun), Olatz Garmendia (Donamariako komentua), Fermina Goienetxe (Elgorriaga), Fermin eta Txaro Jorajuria anai-arrebak (Doneztebe-Donamaria), Mª Dolores Oharriz (Sunbilla) eta Mª Luisa Telletxea (Elgorriaga). Horrez gain, urteetan odol emaileei bere laguntza eskaini dien Mª Carmen Olaetxeak ere lore sorta jaso zuen.

## ODOL EMAILE IZATEKO BALDINTZAK



## Zer behar da odola eman ahal izateko?

- **Osasuntsu** egon eta gaixotasunik ez edukitzea.
- **Adina:** 18 eta 65 urte bitartean.
- **Pisua:** 50 kilo baino gehiago.
- **Tentsio diastolikoa (baxua):** 50 mmHg eta 100 mmHg artean.
- **Tentsio sistolikoa (altua):** 100mmHg eta 180 mmHg artean.
- **Hemoglobina maila (gizonak):** 135 gr/ litroko baino altuagoa.
- **Hemoglobina maila (emakumeak):** 125 gr/ litroko baino altuagoa.
- **Pultsua:** 50 eta 110 pultsazio artean.
- **Odola emateko maiztasuna (gizonak):** gehienez lau aldiz urtean.
- **Odola emateko maiztasuna (emakumeak):** gehienez hiru aldiz urtean.
- **Odol emate batetik bertzerako guttieneko epea:** bi hilabete.
- **Ez baraurik** joan odola ematera.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.net**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak. Zugarramurdiko Akelarre elkartea. Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**2008ko harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 34 € |
| Espainia | 34 € |
| Sara (La Poste) | 52 € |
| Ipar Euskal Herria | 52 € |
| Europa | 52 € |
| Amerika eta Australia | 115 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 27 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Julen, Julian eta Fernando

Bai jaun-andreak. Julen Retegi, Julian Retegi eta Fernando Arretxeri buruz ari naiz. Hasteko eta behin, mila zorion Julen Retegiri, ekainaren 7an Bigarren Mailako buruz buruko txapela lortu zuelako. Bejondeiola!

Argi eta garbi ikusten da Julian Retegik eta Fernando Arretxek gauzak oso ongi egin dituztela, beren semeak pilotari bikainak izan daitezen. Arrunt ongi transmititu dizkiete pilotari buruzko beren jakinduria eta sena. Horretan ez dago zalantzarik txikiena ere. Ez jauna!

Orain, ordea, Julen Retegi, esate baterako, alderatzen baldin badugu Aimar Olaizola, Asier Olaizola, Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea, Xala, Sebastian Gonzalez, Kepa Peñagarikano, Imanol Agirre, Laskurain, Iñigo Pascual, Mikel Olazabal, Begino edo beste askorekin, zer ikusten dugu? Ba, euskarazko hedabideetan ere, gaztelaniaz baino ezin dela mintzatu, momentuz, behintzat. Ez dakit euskaltegiren batean ikasten ari ote den. Eta antzeko zerbait ere gertatzen zaio Iker Arretxeri, ni behinik behin, oso oker ez banago.

Zer gertatu da hor? Non dute Julian eta Fernandoren euskara bizi, fresko, atsegin, alai, natural, aberats eta komunikatiboa? Ez dakigu, baina orain arte, bederen, ez da inon ere agertu.

Egun hauetan, konparaziora, ikusi dugu, edo, entzun dugu, hobeki esanda, Julen Retegi Iñaki Elortzarekin gaztelaniaz hitz egiten Euskadi Irratirako, antza, euskaraz ez dakielako asko. Edo, beste batzuetan gertatzen da Xabier Euzkitzek eta Iñaki Elortzak elkarrizketak egiten dizkietela aitei, semeei buruz hitz egiteko, hau da, kasu honetan Julian Retegi eta Fernando Arretxeri, oso euskara bikaina dutelako biek hala biek, bakoitzak bere euskalkian.

Zein pilotazale euskaldunek ez ote lituzke estimatuko gehiago Julen eta Iker, Eratsun eta Luzaideko euskara jatorrean mintzatzen entzunen balitu? Uste dut erantzuna nabarmena dela.

Lehengo batean, Diario de Navarran ikusi nuen Retegui abizena honela idazten dutela, alegia, *u*-rekin. Nik ez nieke onartuko, eta, izatez, nire abizenekin ez diet utzi egiten edozein gauza. Baina, dirudienez, Julianek horri ez dio aparteko garrantzirik ematen, ikusitakoak ikusita. Norbera askea da jokatzeko nahi duen bezala, eta besteok errespetatu egin beharko dugu, baina...

Nire ustez, pena handia da Julianek eta Fernandok ez transmititzea beren semeei euskararen altxorra, pilotaren sena eman dieten bezalaxe. Semeek ikasiko ote dute beren kabuz? Badaezpada ere, atea irekita utziko dugu; itxaropenari bere aukera emanen diogu.

Bitartean, Abel eta Oinatzen euskara goxoa entzunez gozatuko dugu.

**Xanti Begiristain**
**Iruñea**

## Altxadi Gaztepeñaren oharra

Agian ezaguna eginen zaizue Altxadi izena. Agian aurreko urteetan Lesakako Sanferminetara hurbildu zaretenak Altxadi izeneko peña baten berri izan duzue, gorri eta beltz koloreko blusa bat duena.

Izenak berak erraten duen bezala gazteek sortutako peña bat da, eta izenak berak dioen bezala gazteok Sanferminak hobetzeko beharra ikusten duen peña bat da. Bere ibilbidea orain lau urte hasi zen, herriko gazte multzo batek herriko besteei gabezia batzuk ikusirik tresna bat sortu genuenean gabezia horiek hobetzeko.

Lehenengo hiru urteak sortze fasean kokatu behar ditugu, gure helburuak, izaera, eta jokaera finkatzen pasatu ditugu. Orain, ordea, peña martxan jarri da. Bere izaera eta helburuak finkatu ditu eta orain Sanferminetan eragitera goaz bete-betean.

Gazteok gazteontzat baina herri guztiarentzat sortu dugun peña bat gara. Ehun neska-mutil gara Altxadin, koadrila diferentetakoak, baina gauza bat daukaguna amankomunean: besta diferente batzuk nahi ditugu. Ez dugu jendeak pentsatzerik nahi dagoen guztia zokoratu nahi dugunik. Gure iritziz Sanferminek gauza on aunitz dituzte, baina baita gabezi batzuk ere eta horiek hobetzera goaz. Jai herrikoi, parekide eta parte-hartzaile batzuk nahi ditugu, gure gazte izaera aportatuz herriko besteei.

Aurtengo bestak nahiko xelebre heldu dira data aldetik. Aurten uztailaren 4an hasten dira eta hori dela eta herri mugimenduak, bere parte den Altxadik, egitaraua prestatu du, Sanferminak ahalik eta hoberen ateratzeko denentzat. Guk prestaturikoa uztailaren 9a asteazkenera mugatzen da, non jokoak, 3x3 futbito txapelketa eta peñen arteko poteoa antolatu ditugun. Baina hala ere hemendik herri mugimenduak antolatu dituen ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Deskontrol, Naizroxa eta Governorsek eskeiniko duten kontzertutik hasi, presoen aldeko manifatik jarraitu, eta herri bazkari nahiz peñen jaitsieratik pasaz.

Ezin ahaztu aurtengoan etxetik falta ditugun lagunak eta gure peñako kide den Sanse. Mattin, Ainara, Porttu, Joseba eta Iñaki eta bertze guztiak ere gogoan zaituztegula eta etxean nahi zaituztegula.

**Lesakako**
**Altxadi Gazte Peña**

## Lerde txarrekoa

Boterea galdu, eta urte betean norberak bidea topatzen ez duenean, galtzen ez jakiteaz baino, konformatu nahi ez izateaz, ilusiorik ez izateaz, egonezinaz, ezinikusiaz ari gara hizketan. Baina,

gainera, norbera konturatzen ez bada bere esku dagoela onera egitea, indarrak berritzea eta aitzina egitea, eta hori egin beharrean bere aurkaritzat duenaren kontra jotzen badu, zentzurik ez duen gatazka batean gezurra, manipulazioa, irainak erabiliz, pertsonak ahulduz, zertarako eta bertze batzuk, bera bezala aitzineko legealdian, oraingo honetan bertze irizpideak oinarri hartuta udalkudeaketa hobetzeko lan egin nahi dutenak pertsonalki eta gizartearen aitzinean hondoratzeko, gerraz baino lerde txarraz ari gara.

Zu gatazka batean murgilduta zaude, eta zu zeu zara zure aurkari bakarra. Ez dugu gure burua defendatuko, ez baitugu deus txarrik egin. Aitzina jarraituko dugu. Egindakoek agintzen dute hemen, eta ez zure gezur ustel horiek. Utzi zure eginkizun hori, alde egin, hartu atsedena, eta baloratu udal-kudeaketarako baliagarria eta positiboa zaren ala ez.

**Deñe Abuin**
**Onin Udal Taldea**

## Esker ona Leitza, Goizueta, Arano eta Aresori

Hitz hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuet Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko biztanle guztioi, zuengatik jasotako harreragatik. Gogoan ditut gure artetik joan direnak ere. Jadanik badakizuen bezala, Azpeiti aldera noa lan egitera. Elkarrekin pasa ditugun momentu onak eta txarrak ahaztu ezinak izango dira.

Onena opa dizuet eta mila esker. Izango dugu elkarren berri.

**Estebe**

## • 11 GALDERA LABUR •

**Sanferminak gainean dira, prestatu zara?**
Bai, bai, besta egiteko gogoz.

**Sanferminetako egunik onena?**
Besta egiteko egunik fuerteena Peñen Eguna izaten da, baina herritarren eguna Sanfermin Eguna da.

**Erretiradi. Peñaren izena zer da Sanferminetan etxera agertzeko oroitarazten dizuena?**
Jendea erretiratzeko eta erretiratzeko aritzen zaigu, beti azkenak garelakoz. Hortik atera zen izena.

**Zer dute Lesakako Sanferminek Iruñekoek ez dutena?**
Lesakakoa herriko besta da. Hura egun batean joateko da, hagitz handia da eta ez dut inor ezagutzen. Hemen, aldiz, denak ezagunak dira.

**Lehengo urteko uztailaren 12a, Iruñean. Gogoan al duzu?**
Ez oroitzeko moduan! Urteak nituen joaten baina joan den urtekoa bitxia izan zen.

**Eta aurtengo uztailaren 12a bestondoa ezin garaituz edo Iruñan pasatuko duzu?**
Aurten ere Iruñera joanen naiz. Urtero joaten gara baina ez dakit oraindik zezenaren aitzinean aterako naizen. Familiaren esku dago...

**Astelehena pasatzeko errezetarik onena?**
Aitzinekoari segida eman eta bertze besta bat egitea.

**Zer da errazagoa, zezenaren aitzinean ibiltzea, edo Patagonian, Munduaren Amaierarako Itsasargian ikurrina paratzea?**
Biak ere zailak dira! Batean bigarren gelditu nintzen eta bertzean ez nintzen plazara ere allegatu!

**Gogoan duzu 'El conquistador del fin del mundo'ko azken proba?**
Bai, bai. Eta oroitzen naizen bakoitzean amorrua ematen dit. Garaipena eskura izan nuen, eta bertzea baino lehenagotik nihoan baina okerreko irlara allegatu nintzen!

**Maiatzean Basetxea hasi zen. Inbidiarik ez duzu pasatu?**
Hura ikaragarrizko esperientzia izan zen, eta behin ere sentitu ez nituen gauzak sentitu nituen, baina inbidiarik ez.

**Buruan gelditu zaizun momenturen bat?**
Bideokonferentziaren eguna gogorra izan zen. Nire familia eta neska ikusi nituen... Menditik etxe batera eraman ninduten eta berriz zibilizaziora bueltatzea izan zen. Buelta eman eta mendira joatea kostatu zitzaidan.



**Iosu VAZQUEZ**
*'El Conquistador del fin del mundo'n parte hartutako lesakarra*

CONCEPTIO
Educational Department



985€ pertsonako

UDA HONETAN **HOBETU ZURE INGELESA!**

Prezioak barne hartzen du:
- 2 astez Ingeles Orokorreko ikastaroa York-en (Ingalaterra) (45 min. 20 ikasgai astean). Talde murriztuak, maila guztiak.
- Bizitokia: nazioarteko giroa duen unibertsitateko egoitzan Banako gela: sukaldea eta bainugela beste ikasleekin partekatzeko.
- Liburu eta material pedagogikoak
- Asistentzia-ziurtagaria.
- Ongietorri afaria pub ingeles tipiko batean.
- Matrikula-gastuak.

Espainiako ordezkaria
Carolina Osinaga
c.osinaga@conceptio.cc
M. 636588206
www.edu-conceptio.cc

2008ko uztailaren 5etik irailaren 8ra balioko du eskaintza honek

BEINTZAKO OSTATUA
✆ 948 45 00 14
ORBELA

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktuak
Eztegara, 3 · BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ARRANTZA

# Amuarrainekin Bidasoa birpopulatzeari ekin dio Nafarroako Gobernuak

## Amuarrain arrantzaren debekuak hurrengo urtean indarrean segi dezake

**ttipi-ttapa**

Begoña Sanzberro Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria eskualdean izan zen hilaren 10ean. Amuarrainen arrantza debekatua dagoen sasoi honetan, bere departamentutik espezie hau berreskuratzeko egiten ari diren lanaren berri eman nahi izan zuen. Horretarako, bisitaldian, Bera eta Baztango Ehiza eta Arrantza Elkarteko presidenteekin bildu zen, Juan Otamendi eta Alejandro Aragonekin.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

**Begoña Sanzberro Ingurumen eta Landa Garapen kontseilariak, eta Juan Otamendi eta Alejandro Aragonek, Ehiza eta Arrantza Elkarteetako presidenteak, 4.700 amuarrainkume libratu zituzten Sunbillan.**

Oronoz- Mugairiko arrain haztegira egindako bisitan bertako langileek amuarrainak nola hazi eta produzitzen dituzten ikusteko aukera eduki zuten, baita arrainak markatzeko eta manejatzeko modua zein den ere. Segidan Sunbilla aldera jo eta zubi zaharraren inguruan, aurten jaiotako 4.700 amuarrainkume askatu zituzten Bidasoan. Banaz bertze zazpi zentimetro eta lau gramo eta erdiko amuarrainkumeak bota zituzten. Begoña Sanzberro kontseilariak aipatu zuenez, bere departamentuan *«Bidasoan berriz amuarrainak arrantzatu ahal izateko lanean ari gara»*. Amuarraina Berreskuratzeko Planaren barne egindako ekimena izan zen. Plan horrek bi zati ditu: batetik, neguan 150.000 enbrioi-arraultza botatzea aurreikusia dago, eta bertzetik, udaberrian 70.000 amuarrainkume isurtzea.

Amuarrain arrantzaren debekuaren harira, hurrengo urtean ere erabakia indarrean egon daitekeela iragarri zuen Sanzberrok: *«Ikerketen araberakoa izanen da hori, baina normalean hiru urte irauten dute»*.

Sunbillako bisitaren ondotik, Etxalarko Olako presan egindako arrain eskala bisitatu zuten, baita Antsolokuetako errotaren presa ere. Azken honetan ere arraiendako eskala bat eraikitzea aurreikusia dago. Eskualdeko bisita akautzeko, Bera aldera jo zuten kontseilariak eta Arrantza eta Ehiza Elkarteetako presidenteek. Funvera lantegiko presan arrainak harrapatzeko instalazioak bisitatu zituzten eta han ere, nola kontrolatu eta manejatzen diren, arrainak nola berreskuratzen diren eta errekan goiti amuarrainak nahiz izokinak nola askatzen diren ikusi zuten.

Bidasoa ibaian arrainei bidea errazte aldera, zortzi oztopo kenduko dira; bederatzi eskala eraiki edo hobetuko dira; arrapala bat eta ur-emaria neurtzeko estazioa ere eraikiko dira.

### IZOKINAK BAI

Izokin denboraldia hasi zenetik, dagoeneko 19 izokin arrantzatu dira Bidasoa ibaian. Gainera, euria egiten segituz gero, kopuruak goiti egin dezake.

INGURUMENA

# Olio-isuri bat tarteko Zalain Transformados salatua

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Foru Poliziak Zalain Transformados enpresa salatu du olio-isuri bat tarteko. Ekainaren 4tik 5erako goizaldean gertatu zen isuria, 6:00ak aldera. Antza, makina bateko depositu batetik olio hidraulikoa lurrera erori zen, eta olio hori arketa baten bidez, euri-kolektorera joan zen, eta hortik Bidasoa ibaira. Isuriaren ondorioz, Foru Poliziak, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileek eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko teknikoek isuria gertatu zen lekura joan behar izan zuten. Horren harira, Aitor Etxarri NaBai taldeko legebiltzarkideak ekainaren 11n galdera luzatu zion Nafarroako Parlamentuko Ingurumen Batzordeari. Isuriaren kopurua zenbatekoa izan zen, eta eragindako ondorioak zenbaterainokoak izan diren argitzeko eskatu zion Etxarrik, eta gertatutakoari buruzko akta eta txostenen kopia emateko ere eskatu zuen. Zalain Transformadosek isuna jaso lezake ikerketaren amaieran.






2008
LESAKAko
bestak


Aliprox
Zure marka berria
liderra den talde
baten babesarekin
Urdaitegia
Harategia
Arraindegia
Frutategia
948 637 264
Bittiria, 67 · LESAKA


Juan Luis Otxoteko
pintorea
Etxe barrenean
eta kanpoko pintura
Gotele
Pintatutako papera
Enpapelazioak
Besta
zorionstuak
pasa!
Eskatu aurrekontua
inongo konpromezurik
gabe.


bixkiak
arropa denda
KIROL ETA MODAKO ARROPA DENDA
Arretxea, 7 behea B2
LESAKA
948 638 110
ONGI PASA BESTAK!


KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE
Jai alai eta
pozgarriak
izan itzazuen
Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESAKA


ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-Kontratutarako laguntzak
Empresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Erretiro eta jubilazio espedienteak
Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
LESAKA: Bittiria, 71-behea
Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4
Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713
artekari@artekari.com


intzuri
AUKERA ZABALA
EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN
Bittiria 38 LESAKA
t. 948 62 75 50


ITURBENA
kafetegia
Antoiu 25 - LESAKA
ONGI
PASA
BESTAK


CARNICERIA
Esarte
HARATEGIA
Jaime Urrutia, 35 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 128
ONGI PASA BESTAK!


TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Kalefakziorako Gasoila
etxez etxe banatzen da
Besta ederrak pasa !



# LESAKA

## uztailak 4 ORTZIRALA

**18:30** Baztan-Malerreka-Bidasoako gazteen **XI. TRIKITIXA TXAPELKETA**
**20:00** **Lesakako MUSIKA BANDAren** emanaldia Antoiuko plazan
**21:00** Frontoian **FRONTISen** eskutik Esku pilota profesionalen jaialdia:
**1. partida: BIKOTEKA**
**2. partida: NAFARROAKO LAU TERDIKO TXAPELKETAKO FINALORDEA**
**23:30** **Kontzertuak txoznetan: DESKONTROL, GOVERNORS-NAIZROXA**

## uztailak 5 LARUNBATA

**15:00** Illasmendiko tiro-eremuan **PLATER-TIRO lehiaketa** Pagolleta Ehiza Elkarteak antolatuta
**16:30** **HAURREN PILOTA** erakustaldia frontoian Arkupek antolatuta.
**17:00** **ANIMAZIOA** kanpin eremuan.
**19:00** **EUSKAL HERRIKO SOKATIRA** Txapelketa, 600 kilokoetan. **ARESO, GAZTEDI, GOHIERRI A eta B, GETXO eta MUTRIKU** Osasundegiko gibeleko aldeko zelaian. Beti-Gaztek anto.
**24:00** **TRIKI TA KE** taldearekin dantzaldia Plaza Zaharrean.





## uztailak 6 IGANDEA

**12:00** **ALTXAFEROA** Herriko-Etxetik. Ordu berean txistulariek, soinulariek, **INCANSABLES** txarangak, trikitilariek eta **HAUR TTIKIEN DANBORRADA.**
**17:30** **TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE** taldearen erakustaldia frontoian.
**20:00** Peña guzien ordezkariak altxaferoa bota ondotik **DANBORRADA NAGUSIA** abiatuko da Erraldoi eta buruhandi, danbor-jole eta soinulari eta Lesakako bandarekin herriari itzulia emanez
**24:00** **TXIMELETA** taldearekin dantzaldia eta **INCANSABLES** txaranga karriketan




ONGI PASA SAN FERMINAK
ERRATAK
PINTXOAK
RAZIOAK
KAZULAK
PLATER KONBINATUAK
MENU BEREZIAK
PRESOAK eta IHESLARIAK ETXERA

Etxarte
bitxidenda · erlojudenda · kirol trofeoak
ONGI PASA HERRIKO BESTAK !
Albistur karrika, 1 · 948 637 205 · LESAKA

IÑAKI janaridenda
Arretxea, 12
948 638 287

Dia %
LESAKA
Sanferminetan otordu goxoak prestatzeko LESAKAKO DIA
Plaza Berria, 10 · 948 637 335

Estetika Zentrua
Azal eta gorputz tratamenduak
Depilazioa
Solariuma · Makilajea
Pedikura · Manikura
Albistur 39
31770 Lesaka

APITTU ALUMINIOAK
Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak, Ateak, Garajeko Ateak eta Barandilak
ONGI PASA SAN FERMINAK!
Otsango Auzoa, 7 - Pab. - LESAKA
apittu@hotmail.com

MERTZERIA - Deñe - LENTZERIA
BESTAK ONGI PASA !!
Beheko Plaza, 10
Tel. 948 637 514
31770 Lesaka - Nafarroa

ETXEBERRIA OSTATUA
Plaza Zaharra, 21
Tfnoa: 948 637 700 · LESAKA

FAGOAGA HARATEGIA
Aupa San Fermin !!
Albistur 17 · 948 63 78 69 · LESAKA


Pinpirin
ILEAPAINDEGIA
Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

INDARRI
Hotz komertziala eta industriala
Aire girotua
Tel: 948 630 898
Mug: 639 103 305 BERA
ONGI PASA BESTAK!

Matias MITXELENA
eraikuntzak
Etxeak
Zaharberritzeak
Teilatuak
LESAKA

IÑAKI OLAIZOLA
elektrizitatea orokorrean
GORA SAN FERMIN
Bittiria, 39 - LESAKA
Tfnoa: 948 637 405 - 670 417 499

Jardineria-Lorazaintza
JOHN TELLETXEA MAYO
INGENIERO TÉCNICO AGRÍCOLA
Gora San Fermin!
PARKE PUBLIKOAK ETA LORATEGI PRIBATUA SORTZEA ETA ZAINTZEA
Bittiria, 4 - 2º Esk. - Lesaka
619 418 683

ONGI PASA BESTAK!
IRUKIDE
Eguzki panelak - Iturgintza
Industria mantenimendua
Aire egokitua
Elektrizitatea
Tel/Fax: 948 625 392

MARMOLES ALKAIAGA, S.L.
Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan
ONGI PASA BESTAK!
Alkaiaga ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) - LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731
marmolesalkaiaga@telefonica.net


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak
LESAKA

BIKAIN
ERAIKUNTZAK CONSTRUCCIONES

Luis Olabeaga Altzugarai
652 764 613
ERAIKUNTZA TRADIZIONALA
Lurra, harria,...
LESAKA 652 764 613

AROZTEGI METALIKOA
S. Odriozola - B. Huici
948 631 244 - Fax.: 948 625 564
Alkaiaga Industrialdea
Elutxa karrika - Pab. 3/18
31789 LESAKA
Ongi pasa San ferminak !!!

LESAKA AUTOESKOLA
ongi pasa bestak!

• Arreta pertsonala
• Orain internetez ere
Albistur 39 - H
LESAKA
Tfnoa: 948 637 870


Mikel UBIRIA
eskabazioak
eskabazioak eta garraioak
Tel: 948 637 214
Mug: 619 716 322
608 779 641
Bittiria plz, 8 - LESAKA

izarra
okindegia
GORA SAN FERMIN
Tel: 948 637 855
Plaza Zaharra, 13 - LESAKA

ESTHER ATEAK
• Ateak eta zerrailak saldu eta jartzen ditugu
• Zurgin lanak orokorrean
• Aluminioa
ONGI PASA SAN FERMINAK
Zarandia 9 • Tel/Fax. 948 627 584 • LESAKA
M. 626 500 459 • esther-ateak@terra.es

BEKO
Lore eta landareak
Ongi pasa Sanferminak
Frain auzoa - LESAKA - Tfnoa: 948 637 826

## uztailak 7 ASTELEHENA

**8:30** Ezpatadantzarien **MEZA IXILA.** Joan-etorria Txistulari bandaren laguntzaz eginen da.

**10:30** **MEZA NAGUSIA**.

**Ondotik** Fermin zaindariaren irudiarekin herritik **PROZESIOA**

**Ondotik** Onin errekaren bi aldeetan **ZUBIGAINEKOA.** Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra udaletxera igo baino lehen.

**18:00** **BEZPERAK** Lesakako abesbatzak kantatua.

**Ondotik** Ezpatadantzari taldeak Mutil-dantza, Neska-dantza, aurreskua eta Jotak dantzatuko ditu Plaza Zaharrean.

**19:30** **BERTSO JAIALDIA** Plaza Zaharrean Arrano Elkarteak antolatuta. **ANDONI EGAÑA, MAIALEN LUJANBIO , UNAI ITURRIAGA, XABI TERREROS, JULEN ZELAIETA eta JULIO SOTO.**

**19:30** **KALE ANIMAZIOA** haurrentzat **GOLOKA PARK**, Bittirian.

**Gauez** **GAUBELA** taldearekin dantzaldia.

**Egun osoan** **INCANSABLES** txaranga karrikaz karrika.







## uztailak 8 ASTEARTEA

**9:00** **PEÑEN** gosaria.

**10:00** **PEÑEN DANBORRADA** Ablitas txarangarekin.

**12:00** **BETIZUAK** Plaza Zaharrean Ablitas txarangarekin.

**17:00** **FILAMENTO FAROLARIA**, Clown eta mimo ikuskizuna Plaza zaharrean, haurrentzat.

**18:00** Peñen elgarretaratzea txarangarekin, **PEÑEN JAUTSIERA**.

**20:30** **BETIZUAK** Plaza Zaharrean.

**20:30** **"VIVA JALISCO"** mariatxi taldea kalejiran.

**22:00** **BATUKADA** "Zo-Zongo" taldearen eskutik.

**Gauez** **"LOS DEL GAS" eta "LASHA"** taldearekin dantzaldia.

































MARIAN
mendiberri
estetika zentrua
ONGI PASA BESTAK!
Beheko plaza, 8 • LESAKA
Tfnoa.: 948 637 791


KATTU
OSTATU-JATETXEA
MENUAK • PLATER KONBINATUAK • BOKATAK
ONGI PASA SAN FERMINAK!
Arretxea, 22 - Telf.: 948 627 573 - LESAKA


Barceló
BIDAIAK
ONGI PASA BESTAK!


Ongi pasa bestak!
ba
bidasoa arkitektura bulegoa


TXIRULA
KRISTALDEGIA
CLIMALIT kristal bikoitza
ISPILUAK edozein lodiera eta kolorekoak
alakadunak, kanteatuak...
BEIRA-PLAKA LANDIAK
BEIRA BLINDATUAK
Antoiu, 34 C • LESAKA • 687 424 849


TRANSTXAKAIN
Gora San Fermin!
Otsango industrialdea 14 nabea · LESAKA
☎ 948 638 052 · 669 840 198
Fax.: 948 627 578 · transtxakain@yahoo.es


Semper
autoeskola
BESTA ON BATZUK
PASA ITZAZUE!
BERA Tfnoa/Faxa: 948 630 298


MADERAS
ERKIZIA, S.L.
EXPLOTACIONES FORESTALES
BASO USTIAPENAK
GORA SAN FERMIN!
Plaza berria, 7
31770 - LESAKA
Tel: 948 63 71 58
Faxa: 948 63 80 31


Imaginazioa mugarik gabe
Ongi pasa San Ferminak!!!
ORONOZ
ARGAZKIGINTZA
Plz. Zaharra, 11 · LESAKA · 948 637 593 · 620 056 739


Gora San Fermin!
udana
salazones
Inportazioko bakailu gazitua, gezatua eta kongelatua
Alkaiaga Ind. • Lesaka
Tel.: 948 631 536 • Fax: 948 631 550


ainhoa
estilista
RUTH ILEAPAINDEGIAN
AURPEGI DEPILAZIOA,
SOLARIUM, SPRAY SOL
MAKILAIA, MANIKURA,
ILE BILDUAK,
TRATAMENDUAK,
ILE-LUZAPEN...
ONGI PASA BESTAK
Bittiria 59 • LESAKA • 948 637 436


JOISA
AROZTEGIA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK
MAKINA ERREMINTA
Barandak, balkoiak,
hesiak, forja artistikoa...
ADU 16 Pol. Ind.
LESAKA 31770
Nafarroa
Tel.-Faxa: 948638150
Mugik.: 646774117





uztailak **9** ASTEAZKENA

**10:30** **HAUR eta GURASOEN DANBORRADA** Beti Alai txarangarekin.
**11:00** **GORRITI** haur animazioa Eltzeta plazan.
**12:00** **BETIZUAK** Plaza Zaharrean.
**17:00** **Karts, puzgarriak**... Komentuan
**18:00** **PILOTA** partida profesionalak frontoian.
**Arratsaldez**
**Gauez** **EGAN** taldearekin dantzaldia eta **ABLITAS** txaranga karriketan.









uztailak **10** ORTZEGUNA

**11:30** **NAFARROAKO JOTAK "VOCES DEL EBRO"** Andra Mari Zahar Etxean.
**12:00** **BETIZUAK** Plaza Zaharrean Ablitas txarangarekin.
**16:30** **ESKULAN TAILERRAK DETRAKA** taldearekin Eltzeta Plazan.
**17:30** Euskal Herriko pilotari afizionatuen arteko **PILOTA PARTIDAK** frontoian (sarrera dohainik).
**18:00** **NAFARROAKO JOTAK "VOCES DEL EBRO"** Plaza Zaharrean.
**18:00** **KALEJIRA** Eskolttikitik Txakainera.
**20:00** **TXAKAINDIK** jautsiera zortziko doinuarekin.
**Arratsaldez**
**Gauez** **JOSELU ANAIAK** taldearekin dantzaldia.
**Ondotik** **ABLITAS** txaranga.
**03:00** **JAI-HILAK** Ablitas txarangarekin.































ZOAN, S.A.




TXAPA • PINTURA • MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA

ongi pasa bestak

SEAT Audi HYUNDAI

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. 31789 LESAKA (sarrera Beratik)
Tel.: 948 625 555 • Faxa: 948 625 505

LESAKAKO UDALAK

San Fermin zoriontsuak

opa dizkie herritar eta

kanpotik etorritako guztiei

Lesakako
Udala

BERA

# Lau lagun kanporatuta eta sei lekualdatuta haserre dira Composites Gureako langileak

## Egoera salatzeko protestak egin dituzte

ttipi-ttapa

Composites Gurea lantegiko langileak ez daude lasai. Berriki lau langile kanporatu dituzte eta bertze sei Berako lantegitik lekualdatu dituzte. Hori salatu nahian, Enpresa Batzordeak lanuztea deitu zuen hilaren 10ean. Horrez gain, kontzentrazioa ere egin zuten. Gaur egun 70 langile ditu Composites Gurea lantegiak eta Enpresa Batzordeak ELAko hiru ordezkari eta LABeko bi ditu. Guztiek babestu zuten egoera salatzeko ekainaren 10ean egindako protesta. Sindikatuen arabera, nahiz eta azken urteotan enpresak irabazi garrantzitsuak lortu, *«bidegabeko lau kanporatze egin dituzte eta bertze sei lankide Beratik 60 kilometro baino gehiagora dagoen Gipuzkoako lantoki batera lekualdatu dituzte»*. Kanporatze horiek zerrenda luze baten hasiera bakarrik izan daitezkeelakoan, arduratua dago Enpresa Batzordea.

### Joseba Larralde Euskadiko txapeldun

Afizionatu mailako bere lehen garaipenaren bila zebilen aspaldian Joseba Larralde. Nafarroako 23 urtez beheitiko txapelketa irabazi zuen maiatzean, baina sailkapen orokorrean bigarren izan zen. Bidasoako Itzulian ere saiatu zen, eta sari gisa, lehendabiziko euskaldunaren saria lortu zuen. Baina karrera bat irabaztea falta zitzaion eta horixe lortu zuen ekainaren 14an Laudion jokatutako Pedruzo Memoriala txapelketan. Eta ez zen nolanahiko garaipena izan: Euskadiko elite eta 23 urtez beheitiko txapelketa erabakitzen zuen lasterketa irabazi baitzuen. Bidelan Kirolgi taldeko herritarrak 44 segundoko aldea atera zion bigarren helmugaratuari.

### Lorez apaindutako balkoi eta leihoen lehiaketa

Larun-Haitzpe Merkatarien Elkarteak antolatuta –Udalaren eta Rural Kutxaren laguntzarekin–, lorez apaindutako balkoi eta leihoen lehenbiziko lehiaketa eginen da herrigunean. Ekainaren 25ean hasita uztailaren 25era bitarte luzatuko da eta herria lau zatitan banatu dute: Agerra auzoa; plaza aldea; Legia, Kanttonberri eta Eztegara aldea eta Altzate ingurua. Inguru bakoitzean sari bat banatuko da eta abuztuaren 1ean eginen da hori. Zonalde bakoitzeko irabazleak bi lagunentzako afaria eta bere balkoiaren argazkia markoan eta aipamenarekin jasoko ditu.




### Sanesteban Bestetako kartela

**Sei lanen artean, epaimahaiak Ezkabarteko Iñaki Fernandezen kartela aukeratu du. 400 euroko saria jasota, berea izanen da bestetako egitarauaren azalean agertuko den irudia.**





Argazkiak: TELLETXEA eta ONDIKOL

### Emozioz beteriko IV. Kirol Eguna

**Kirol Batzordeak antolatutako IV. Kirol Eguna egin zen hilaren 14an eta arrakastatsua ez ezik, emozioz betetakoa izan zen. Funky hip-hop, aerobic, aerobic latinoa eta ciclo indoor eginez gorputza mugitzen ibili ziren goizetik. Artxila rokodromoaren edo boulderraren inaugurazioa ere egin zen eta horren sustatzaile izandako Loro Pikabea eta Xabi Zubietari eskainitako plaka agertu zuten. Bazkalondoan, omenaldia eskaini zioten aurten hil den Genaro Zelaieta futbolari haundiari. Horretarako, Gure Txokoa, Reala eta Osasunako beteranoak bildu ziren futbol-zelaian. Josu Iratzoki alkateak eta Rafa Etxeberria zinegotziak loreak eta oroigarriak eskaini zizkieten Genaroren emazte eta alabari. Gure Txokoa, Reala eta Osasunak ere euren oroigarriak eman zituzten. Euren partidatxoa jokatu zuten guztiek, eta Genaro gogoan, denak irabazle atera ziren.**

Alberto RETEGI
abokatua
✆ 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Xirgil
Altzate 1 · BERA
Tfnoa 948 631 468

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Bera Goya
Altzate, 5 · Tel: 948 630 063

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

LESAKA

# Laminaciones de Lesaka lantegia sortu zela 50 urte bete dira

Garairik onenean 2.000 langile zituen Lesaka, Legasa eta Zalain-Zokon

Aitor AROTZENA

Ekainaren 16an, 50 urte bete ziren Laminaciones de Lesaka lantegia sortu zenetik. Hain zuzen, 1958ko ekainaren 16an sortu zen, 15 milioi pezetako kapitalarekin. Kapital hori 1.100 milioi pezetara handitu zen 1972an. Laminaciones Jose Luis Varez Fisak bultzatu zuen. Txatargile honek tailerra zeukan Pasai Antxon eta Lesakara leku aldatu zuen.

Duela mende erdi gorabeherak izan ziren egitasmo hau onartzerako orduan. 1958ko martxoaren 21ean Herriko Etxearen batzarra egin zen eta apirilaren 2an, Junta de Veintena izeneko batzordearen bilera. Ez zen bozketarik egin. Itxura batean, fabrikaren aldekoak kontrakoak baino aunitzez gehiago ziren, eta bozketa eztabaidarako eta haserretzeko bakarrik balioko zuela pentsatu zuten.

Lantegia egiten hasi ziren eta zabalkunde garaia bizitu zuen. Bere gorabehera guziekin, Baztan-Bidasoaldeko motore ekonomikoa izan zen. 1973an, Altos Hornos de Vizcayak hartu zuen Laminaciones. Bilboko enpresaren fakturazioaren erdia Lesakak egiten zuen orduan.

Garairik onenean 2.000 langile baino gehiago aritu ziren Laminacionesen, 1.400 Lesakan, 585 Zalain-Zokon eta 193 Legasan, baina azken mende laurden honetan kopuru hori nabarmen jautsi da.

1990eko hamarkada hasieran CSI taldean sartu zen. Gero pribatizatu eta Arbed taldean, Aceralia izena hartuz. Gaur egun, Lesakako lantegiak Arcelor Mittal izena hartu du. Zalain-Zokoko lantegia, berriz, Condesa taldean sartua dago.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Enplegu tailerra inauguratu da

**Dependentzia duten pertsonei arreta zerbitzuak eskaintzeko enplegu tailerra egiten ari da aurten Lesakan. Tailer honen inaugurazio ekitaldian izan zen ekainaren 10ean Jose Maria Roig Aldasoro, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Lan kontseilaria. 15 emakume prestatzen ari dira.**

### *Sanferminak*

Sanferminetako egitarau ofizialarekin batera, herri mugimenduak ere zenbait ekitaldi antolatu ditu. Uztailaren 4an manifestazioa eta gauean kontzertua Naizroxa, Governors eta Deskontrol. Uztailaren 5ean, 17:00etan akanpalekuan taldekako jokoak. Uztailaren 8an animazioa peñen jautsieran. Uztailaren 9an jokoak eta futbito 3x3 txoznetan Albadi peñak antolaturik. Gero, peñen arteko poteoa txarangarekin. Uztailaren 10ean bazkaria eta ondoren musika.



PERTSONAIAK

FAGOAGA AHIZPAK

## Konpetizioan gogor ari dira Ione eta Itsaso

Ione eta Itsaso Fagoaga ahizpak Skeet Olinpikoan ari dira aurten ere. Espainiako Kopa Itsasok irabazi zuen martxoan, Granadan. Maiatzean, Madrilen, Espainiako Errege Kopa jokatu zen. Ione txapeldunordea izan zen. Abuztuan Nafarroako txapelketa izanen dute eta irailean Espainiako txapelketa.



Argazkia: Juanjo GUERRERO

### *372 mendizale IX. Mendi Itzulian*

**Aurreikuspen guziak gaindituz, 372 mendizalek parte hartu zuten ekainaren 15ean Beti Gazte elkarteak bederatzigarren aldiz antolatutako Lesakako Mendi Itzulian. Ibiltzeko eguraldi ona eta bi ibilbide aukeran (33 eta 25 km.) izan zituzten partehartzaileek. Horietako batzuk Goiko Iragan ageri dira argazkian, indarrak berreskuratzen.**

ZJ Zalain jatetxea - hostala
14 logela bainu eta TBrekin
Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

BERA
GOIEKO
Zure inguruan kiton guziak inusitatu (xomorro, zimorro, armiarma, kukuso...) eta zureki zagitzat garbitu nahi badozu, deitu! Termita eta Pipian tratamenduak
Industria Garbitasun Produktuak
Tel. 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

ETXALAR

# Arrakoitz Industrialdeko proiektua martxan dago dagoenekoz

## Herri Taldearen aldeko eta EAren kontrako botoekin onartu da

**Joseba eta Nerea**

Ekainaren 6ko Udal Batzarrean Arrakoitz Industrialdea abian jartzeko hitzarmena behin betiko onetsi zen Herri Taldearen aldeko 4 botoekin eta EAren kontrako 3 botoekin, egin ziren alegazioak erantzun eta zuzendu ondotik. Arrakoitz inguruko eremuak lur industrial gisa kalifikatzeko lehenengo urratsak eman dira eta Udal Planean egin beharreko aldaketak ere behin-behineko onespena izan dute boto berdinekin.

Udalak Arrakoitzeko promotoreekin sinaturiko hitzarmenean hainbat gauza zehaztu dira. Alde batetik, Udalak Plan aldaketa egiteko konpromisoa hartu du. Bertzetik, promotoreek Udalari eman beharreko gauzak zehaztu dira. Hauen artean legeak ezartzen duen industrialdearen %10a, ur depposituaren eta depuradoraren mantentze gastuak, depositura doan bidearen mantentzea eta Arrakoitz baserria daude, bertzeak bertze.

Plan aldaketari dagokionez, industrialdeak izanen dituen metro koadroak eta eraikitzeko kapazidadea zehaztu dira. Ur depositua, depuradora, argiaren transformadorea eta aparkalekuak gune berdean kokatzen dira. Eta bertan aurreikusten da egiten diren pabiloiak nolakoak izanen diren eta zein industria mota edo zerbitzu eman dezaketen zonalde bakoitzean.

### *Udaleku Irekiak*

Aurtengo udan ere herriko haurrak jolas giroan pasatuko dituzte uztaileko goizak, Udaleku Irekiak antolatu baititu Euskara Mankomunitateak Dindaia fundazioaren laguntzarekin. Uztailaren 7an hasi eta lau astez luzatuko dira. 30 haurretik goitik izena eman dute dagoenekoz. Udalekuetan lau lagun arituko dira begirale lanetan. Hauetatik bat etxalartarra da, Miren Olaetxea. Bertzeak Berako Ainhoa Lantz eta Jon Irazoki eta Doneztebeko Maria Santxez dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Arrakoitz Industrialdeko proiektua.**



ARGAZKIAK: ONINTZE ZINKUNEGI

### *Haurren Egun arrakastatsua*

**Giro ederrean joan zen ekainaren 15ean aurtengo Haurren Eguna. Goizean goizetik ekitaldi parrasta bat izan zituzten herriko ttikienek eta, ez zuten aspertzeko astirik izan ilunabar aldera arte. Frontoian eskulan erakusketa paratu zuten bertara hurbildu ziren guztiek ikusteko. Ipuin Topaketan hainbat ipuin irakurri zituzten, eta herri-bazkarian 60 haurretik goiti elkartu ziren. Pailazoen antzerkiarekin ederki gozatu zuten, nahiz eta aurtengo nobedadea haurren arteko jolasek ekarri zuten. Arraultze-jokoan, zaku-lasterketetan, globoak lehertzen eta zapiaren jokoan aritu ziren, bertzeak bertze.**









## ARANTZA

# Uztailaren 14tik abuztuaren 8ra Udaleku Irekiak eginen dira

Izena emateko 948 634125 telefonora deitu behar da

Nerea ALTZURI

Azkenean ailegatu da uda. Esperoan ginen eta datak bezalaxe, eguraldiak ere hori erakutsi du. Urtesasoi hasiera behintzat eguzkitsu hasi zen. Joan den astean eskolako lagunek ikasturteari akabera eman zioten. Ortziralean, ekainak 20, ateraldia egin zuten Iruñera. Goizean, Mutiloako bi lantegi bisitatu zituzten: Panasa izeneko ogi lantegia eta Adaxka lorezaintza. Ondoren Iruñan bertan bazkaldu zuten eta Larrabide igerilekuetan pasatu zuten arratsaldea. Gustura eta egunarekin gozatuz ibili ziren. Oraindik maixuak hilabete osoan lanean izanen dira: ikasleen notei buruz gurasoekin bilduz, ikasturte berriko egutegia, liburuak eta abar finkatuz nahiz bertzelako lanak eginez.

Halere, irakasle zein ikasleek hurrengo bi hilabeteak atseden hartu eta irailaren 8an ikasturte berria abiatuko dute indarberriturik.

Eta tartean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolaturiko Udaleku Irekiak izanen dira. Aurten, adinaren arabera bi talde banatu dituzte: 3 urtetik 9 urtera eta 10 urtetik 12 urtera. Lerro hauek idazten ari ginela, Euskara Mankomunitatetik jakinarazi digutenez, herriko 7 neska-mutikok izena eman dute. Oraindik izena eman daiteke eta 948 634125era dei daiteke interesa izanez gero. Uztailaren 14tik abuztuaren 8ra izanen dira udalekuak eta era guzietako ekintzak eginen dira astelehenetik ortziralera eta goizero 10:00etatik 12:00etara: tailerrak, eskulanak, antzezlanak, herri kirolak, mendi ateraldiak…

Beraz, nahi duenak oraindik badu aukera. Elkarrekin ongi pasatzeko eta euskaraz aritzeko aukera eskaintzen dute Udaleku Irekiek.



ARGAZKIA: J. PIKABEA

### Zakurren errabiaren aurkako txertoak

**Bortzirietako bertze herrietan bezala, errabiaren aurkako txertoak paratu dizkiete herriko zakurrei ere. Joan den ekainaren 16an Julio Salinas albaitaria Herriko Etxeko Gorapean izan zen zakurrei txertoak paratzen. Bi urtetik behin txertatu behar izaten direnez, iaz egin gabe gelditu zireneí paratu zitzaien txertoa.**

## FLASH

### Omenaldiak

Garraiolarien greba zela eta, data gibeleratu ondoren, uztailaren 2an, Gorraizen Arkupeak Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak besta izanen du. Herritar batzuk omenduak izanen dira: Eguzkialdeko Ximonenbordako Xalbador Madariaga eta Sekundina Bergarak Urrezko Ezteiak beteko dituzte aurten; eta bertzalde, Arizpe baserriko Kornelio Ubiriak 85. urtebetetzea du. Zorionak zuei eta familiei!

### Zerrakuren bilketa

Aitzineko alean aditzera eman bezala, udaletxeko mendiko zinegotziak zerrakurak uztailaren 15a baino lehen biltzeko oharra zabaldu du. Izan ere, dirulaguntza lortzeko epea irailaren lehenean akautuko da. Iraila arte astia baldin bada ere, zerrakurak biltzeko lana aitzinetik egin beharra da. Norberak uztailaren erdialdera bitartean ez badu egiten, udal langileak edo mendiko lanak egiten dituen enpresak lan hori bere gain hartuko du. Beraz, hortxe dago abisua! Zerrakurak biltzeko lan hori lehenbailehen bukatu behar da. Beti ere, irailaren 1a baino lehen, bertzenaz ez da subentziorik kobratu ahal izanen.









IGANTZI

# Herriko Etxe berria inauguratu da Eskolzarren

## Ia 258 metro koadro erabilgarri izanen ditu eraikin berriak

ttipi-ttapa

Ekainaren 7an inauguratu zuten Herriko Etxe berria. Horretarako, Eskolzar moldatu dute, garai bateko eskola eta berrikiago Nafarroako Aurrezki Kutxaren bulegoa izandakoa. Inaugurazio ekitaldian, Iñaki Goienetxe alkatea, egungo eta aitzineko legealdiko hautetsiak eta udal langileak izan ziren, baita Bortzirietako hautetsiak eta Amelia Salanueva Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio kontseilaria ere. Lehenik, udaletxe zaharretik herriko bandera jautsi zuten eta banderaren dantza egin zuen Roberto Txoperenak. Herriko abesbatzak eta dantzariek ere parte hartu zuten ekitaldian. Martin Legarra apaizak bedeinkazioa eman zion udaletxe berriari eta zinta moztutakoan, eraikina ikusi zuten bildutakoek.

Aurrekontua 225.825 eurokoa izan da eta Toki Administrazio Departamentuak 106.720 euroko laguntza eman du. XVII. Mendeko eraikina Herriko Etxearena da, baina Principe de Viana erakundearen babespean dago. Zurezko egitura moldatzeaz gain, aitzinaldea ere egokitu da eta elektrizitatea, saneamendua, berogailua eta igogailua paratu dira. Guzira 257,91 metro koadro erabilgarri izanen ditu udaletxe berriak, 84,55 metro beheitiko solairuan, 91,02 lehenbizikoan eta 82,34 bigarrenean. Lesakako Sarobe Anaiak eraikuntza enpresak egin ditu lanak.

### *Zolatze lanak eta Berrizaungo ura*

Azpiegitura Planaren barne, Agertxeberri-Bordaberri bidearen zolaberritze lanak ere egin dira. 130.257 euroan eman ziren lanak eta Toki Administrazioaren laguntza 4.090 eurokoa izan da. Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak, berriz, aurrekontu osoaren %60a eman du. Lan hauek Sasoi Eskabazioak enpresak egin ditu.

Berrizaunera ura eramateko lanak ere Azpiegitura planaren barne sartu dira. 103.681 euroko inbertsioa aurreikusi da eta Gobernuak 71.504 euroko laguntza onartu du. Ur depositu berritik hornidura-tuboa eramanen da Berrizaungo depositoetako batera. Gisa berean, Herriko Etxeak Berrizaungo ur hornidura sareen berrikuntza eta deposito berriaren eraikuntza lanak lehenbailehen onartzea eta egitea eskatu du. Hornidura sareak 104.500 euroko aurrekontua izanen luke eta 102 metro kubiko izanen lukeen depositu berriaren proiektuak 246.574 eurokoa. Berrizaunen ez dago urbanaketa sare bateraturik, ez uren tratamendurik ere. Herriko deposititik ura ekartzean, tratamendua hobetuko da, baina depositu bakarra egin beharko da eta bizilagunei zerbitzu bateratua eskaintzeko banaketa sarea egin beharko da.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

**Banderaren dantza, Herriko Etxe berriaren inaugurazio ekitaldian.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Eskerrak emateko eskolakoen oharra*

***«Azkenean egun hori allegatu da. Eskola amaitu da! Oporrak! Ederki merezita daukagu. Igantziko Eskolan behinik behin bai. Eguneroko lana bukatu zaigula-eta, pentsatu dugu tenore ona dela 10 hilabeteotako lan pila distantziatik begiratu eta helburuak lortzen lagundu diguzuenoi eskerrak emateko. Beraz, esker aunitz zuei: Guraso Elkarteko Juntakoak; aurten gure haurrekin egondako irakasleak; zuei, ikasleak; guraso eta aitatxi-amatxiak; Udala; Jokin aibinte ahalguztiduna; Mª Jesus eta Blanki; ikasleak batetik bertzera kotxeetan eramaten lagundu duten gurasoak; Oskar Txoperena; Xabi Muro, Jose Canabal eta Manuel Telletxea; Baratzondoko kideak; Xabier Sarasola; etxetik tresna zaharrak ekarri dituztenak; Lander Sein; Jose Zamora; Biltoki; Estitxu Arozena; Iñaki Zubeldia; Iñaki Goienetxe; Lekarozko ILZkoak; eta bereziki: Nagore Txoperena; Jose MªArbelaitz, Estitxu Mentaberri; Joxelu Berasategi; Auxtin Zamora; gure jostun Rexu Irigoien, Jalone Sein, Mª Angeles Martinez, Idoia Urtxegi eta Kontxita Iturbide. Esker aunitz aurten Berara doazen ikasle maitagarriei! Eta amaitzeko edo hasteko, esker aunitz heldu den ikasturtean lagunduko diguzuenoi!».***

ttipi ttapa
www.ttipi.net
info@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

ERREKALDE
Ongi pasa bestak!
TFNOA: 948 630 259 BERA



## SUNBILLA

# Ordutegi berria izanen da igerilekuetako aurtengo denboraldian

### 12:00etatik 20:00etara egonen da zabalik

**Jalone OTXANDORENA**

Azken momentura arte Udalak ez du igerilekuetarako arduradunik topatu, baina zorionez, azken bi urteetan bezala, Naiara Arretxea herriko gazteak hartu du uda honetarako igerilekuen ardura. Margari Kapdeki eta Aritz Arriolaren laguntza izanen du. Hala ere, aurten ordutegian aldaketa txiki bat izanen da: 11:00etan ireki beharrean ordu bat beranduago irekiko dira. Beraz, 12:00etatik 20:00ak arte egonen dira zabalik. Aipatu, eguraldi kaxkarra dagoen egunetan igerilekua ez dela zabalik egonen. Denboraldi honetarako hiruhilabeteko nahiz hilabeteko txartelak hartzeko Nafarroako Kutxako eta Rural Kutxako bulegoetan egin daiteke.

### *Ana Petrirena saritua*

Maiatzaren 17an Internet Eguna izan zen eta hori dela eta, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak *Piki: la cabaña del bosque* hezkuntza portalaren bidez lehiaketa bat antolatu zuen. Sunbillako ikasleek ere parte hartu zuten, eta ez hori bakarrik, sari bat ere ekarri baitzuten. Lehiaketako sariak ekainaren 16an banatu ziren, eta 3. eta 4. mailako ikasleei bideratutako atalean Ana Petrirenak hirugarren saria jaso zuen. Sari gisa, diploma, MP3 erreproduzitzailea eta liburu-sorta eskuratuko ditu Anak. Bere lana eta bertze sarituenak *www.pnte.cfnavarra.es / piki* web orrian daude ikusgai.



ARGAZKIA: MENA

### *Ekitaldiz beteriko ikasturte bukaera*

**Ikasturte bukaera ekitaldiz betetakoa izan dute eskolako haurrek. Ekainaren 16an, 10:00etan autobusa hartu eta Hernaniko Txillida Leku museoa bisitatzera joan ziren. Hasiera batean Guadalupen bazkaldu eta arratsaldean hondartzara joatekoak ziren, baina eguraldi txarraren ondorioz, Txikiparken pasa behar izan zuten arratsaldea. Aste horretan bertan, ekainak 18, Sunbillako, Iturengo eta Narbarteko eskolako ikasleak Legasako frontoian elkartu ziren, Kulki taldeak prestatutako mehatzarien jolasak eta herri kirolak egitera. Hurrengo egunean herriko zenbait haurrek martxoko Asteburu Kulturalean eskainitako antzerkien bigarren atalak antzeztu zituzten Goiko Eskolako parkean, eta ekainaren 20an, ikasturteko azken egunean, ikasleek antzerki, kanta eta beste zenbait ekitaldi egin zituzten guraso eta hurbileko jendearen aitzinean. Orain, udako oporretan, berriro ere indarberritu eta datorren irailean gogotsu hasiko dute ikasturtea. Bide batez, aipatu, datorren ikasturtean eskolako jangelan izena eman nahi duenak ekainaren 30a arte egin dezakeela, Herriko Etxera joanez edo bertara deituz: 948 450071. Argazkian aurtengo ikasturtean eskolan egon diren ikasle eta irakasleak ageri dira.**







MALERREKA

# Hiru urte artekoentzako Haur Eskola eraikiko da Donezteben

## Uztail hasieran irekiko dute izen emateko epea

ttipi-ttapa

Herritarren behar bati erantzunez, urte bat eta hiru urte arteko umeentzako Haur Eskola eraikiko da heldu diren bortz hilabeteetan. Hala erabaki zuen Doneztebeko Udalak maiatzaren 27ko plenoan eta 285.000 euroren truke Jaunaga Eraikuntza enpresak eginen ditu lanak. Haur Eskola azaroan edo abenduan zabaltzeko prest egonen dela aurreikusi dute Herriko Etxetik.

45 haur hartzeko prestatua egonen da Haur Eskola berria eta uztail hasieran zabalduko dute izen emateko epea. Horretarako Malerrekako Mankomunitatearen barne dauden herrietako haurrak izatea ezinbertzeko baldintza izanen da.

### Zubietatik Expo Zaragozara

Ekainaren 14an hasi zen Expo Zaragoza 2008 nazioarteko erakusketa ospetsua, eta irailaren 14a bitarte zabalik egonen da. Hego Euskal Herriko hainbat ordezkari han izanen dira, eta tartean eskualdekoak. Uztailaren 5a, larunbata, Nafarroako mendialdeari eskainitako eguna izanen da. Horren harira gonbidatu dituzte Zubietako joaldunak eta Elizondoko Musika Banda. Gainerakoan, *berrikuntza iraunkortasunaren alde* mezuarekin munduko hainbat herrialdetako 140 pabiloi daude ikusgai, eta denek urarekin duten harremana.

### Bestetako egitaraua

Ohar baten bidez, Doneztebeko Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie aurtengo San Pedro bestetako egitarauaren azalerako kartelak egiten aritu diren guztiei. Lehen saria irabazi duten ikasleak Iban Juanena, Maider Arotzena eta Juan Ramon Graziarena izan dira.



Argazkia: ZALDUA

**Merkatarien saria Iturenera**

**Garbiñe Olazar Bazterrika iturendarrak eskuratu du Doneztebarrak Merkatarien Elkartearen azken zozketako saria. Saria, irudian ageri den motorra, Mª Jose Bereau Kamamila arropa-dendako jabeak eman zion. Bi iturendarrak ageri dira argazkian.**

FLASH

### Sarituak Sunbillan eta Legasan

Maiatzaren 17ko Internet Egunaren harira, Nafarroako Lehen Hezkuntzan lehiaketa antolatu zen *Piki: la cabaña del bosque* hezkuntza portalaren bidez. Zehazki hiru arlo landu zituzten lehiaketa honetan: marrazkia, albisteak eta erreportajeak. Ikasleek beraien lanak Interneten zintzilikatzeko aukera eduki zuten. Bada, lehiaketa honetako sariak banatu ziren ekainaren 16an. Eskola ttikietako ikasleek irabazi zituzten sariak, tartean Legasa eta Sunbillakoek. Albisteen kategorian, *Nola ikasten dudan ordenagailuarekin!* gaiari buruzko berria egin behar zuten 3. eta 4. mailako ikasleek. Bigarren saria Legasako eskolako Olatz eta Amaia Subizarrentzat izan zen eta hirugarrena Sunbillako eskolako Ana Petrirenarentzat. Bigarren eta hirugarren sari horiengatik, diploma, MP3 erreproduzitzailea eta liburu-sorta eskuratuko dituzte. Parte-hartze haundiena izan duen ikastetxea Legasako eskola izan da, Zizur Nagusikoarekin batera. Horren truke, diploma eta argazki makina digitala jasoko dituzte.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
· Melamina taulak
· Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
· Txapaz estalitako taulak
· Entzimerak
· Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
· Pintura eta bernizak
· Bainurako mobleak eta osagarriak
· KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



goldea
tailerra s.l.l.
tel. 948 45 00 60
fax 948 45 00 60
Aparan 5
31740 Doneztebe
(Nafarroa)
goldeatallerra@gmail.com

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491



Mendialdea etorb. 34 · ZUBIETA

ITUREN

# Nafarroako 2. mailako kanporaketa jokatuko du Erasunek larunbatean

Eulaten jokatuko da saioa, 17:30etik aitzinera

ttipi-ttapa

Larunbatean, ekainak 28, Nafarroako 2. mailako kanporaketako probak Eulaten jokatuko dira, 17:30ean. Eskualdeko partaidetza nabaria izanen da eta tartean izanen da Ander ere.

**Urrezko txapeldun**

Ekainaren 7an Azpeitian jokatutako Urrezko Aizkolarien finalean txapel bat herrira etorri zen. 18 urtez beheitiko proban, Ander Erasun izan zen garaile 16:03ko denborarekin. 17 segundo gehiago behar izan zituen Oihan Larretxeak. Proba guztietan garaile izan zen aurtiztarra, baina Larretxeak ere gogor egin zion Anderri.

**Erakustaldiak**

Dagoeneko udako erakustaldiekin herriz herri hasia da. Joan den ekainaren 22an Saldiasko bestetan Ander Erasun eta Ruben Saralegik Oihan eta Garikoitz Larretxea lehengusuen aurka jokatu zuten. Arratsaldean, berriz, Lekunberrin izan zuten erakustaldia; Ander eta Oihanek Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano izan zituzten aurrez aurre.

Ekainaren 24an, Euskal Herriko gazte mailako aizkolarien txapelketa Andoainen izan zen. Aurtiztarrak, Oihanek, Ruben Saralegik, Arkaitz Olanok eta Julen Aranberri *Elorriaga II.ak* parte hartu zuten. Emaitza horien berri hurrengo alean emanen dizuegu, lerro hauek idazterakoan oraindik jokatzekoak baitziren.

### *Ituren, Zubieta eta Elgorriaga ehizerako lanean*

Ituren, Elgorriaga eta Zubietako udalek elkarlanean, ehizaren mankomunitatea sortu dute. Tokiko ehiza-barrutia da sortu dutena, eta hiru herrietako eremuek osatzen dute. Miguel Angel Petrirena herriko alkatea izanen da mankomunitateko presidentea.



Utzitako argazkiak

### *Eskolako txangoak*

**Ikasturtearen azken astean hainbat ekitaldirekin gozatzeko aukera izan dute eskolako ikasle eta irakasleek. Ekainaren 17an, asteartearekin, txangoa egin zuten: goizean Sarako leizeetara bisita egin zuten eta arratsaldea parkean pasatu zuten. Ekainaren 18an Legasara joan ziren eskualdeko bertze eskoletako ikasleekin batera eta Kulki taldearekin herri jolas eta herri kirol aktibitate ezberdinak egin zituzen. Hilaren 20an, azkenik, liburuak alde batera utzi eta ikasturte amaiera behar den bezala amaitzeko Guraso Elkarteak antolatuta herri kirolak, bazkaria eta trikitilariekin dantzaldia izan zuten guraso, irakasle eta haurrek.**

GIZARTEA

## Udan adimen urritasuna dutenekin lan egiteko boluntario bila

ttipi-ttapa

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Nafarroako elkarteak, Anfasek, hainbat jarduera antolatu ditu uda honetarako. Horietako bat Lesakan izanen da, hiru aste iraunen ditu eta uztailaren 21etik abuztuaren 8ra eginen da. Udako kanpaldi hauek 10:00etatik eguerdira bitarte izanen dira, astelehenetik ortziralera. Baina horretarako boluntarioak behar ditu elkarteak, adimen urritasuna duten haur zein gazteekin tailerrak eta irteerak egiteko. Horrez gain, hamar egunez oporretara joateko aukera ere izanen dute boluntarioek. Euskal Herriko hainbat txokotara edo kanpora eginen dira ateraldiak: Orio, Hondarribia, Zarautz, Lekaroz, Logroño, Calafellera (Katalunia), Comarruga (Katalunia)… Interesatuek Anfas elkartearen telefonoetara deitu beharko dute: 948 275 000 edo 680 459 795. Bertzela, *voluntariado@anfasnavarra.org* helbidera idatzi beharko dute. Asfasen eskualdeko ordezkariarekin egoteko 680 459976 (Elisa) telefonoa jakinarazi dute.

arkitanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D
ELIZONDO · Santiago, 54 behea · 948 581 931
BERA · Eztegara, 9 behea · 948 625 232



BERTIZARANA

# Kontserbazioko Zona Berezi izendatu du Gobernuak Bertizko Jaurerria

## Foru Dekretu bidez onartu du

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu baten bidez, Kontserbazioko Zona Berezia izendatu du Bertizko Jaurerria. Horrez gain, 2.052 hektarea hartzen dituen eremu honen Erabilera eta Kudeaketarako hirugarren Plan Gidaria ere onartu du, natur paisaia babestu edo ekosistemen interpretaziorako hezkuntza jarduerak bultzatzeko.

Bertizko Jaurerriak Nafarroako aniztasun biologikoaren erakusgarri diren landare eta animaliak ditu, batzuk bere eremu naturalean desagertzeko arriskuan daudenak. Horregatik, habitat horien etorkizuna bermatu behar da, eremuak aukeratu eta sistema eta kudeaketa eraginkorraren bitartez.

2000.eko maiatzean, Europako araudiari segituz, Natura 2000 Sarea osatu zuen Gobernuak. Ekologiarako garrantzi berezia duten leku horien artean zegoen Bertizko Jaurerria eta orain bertze urratsa eman da, Kontserbazioko Zona Berezia izendatuz.

### Bertizaranako Eguna

Txistulari eta gaiteroen doinuek eman zioten hasiera aurtengo Bertizaranako Egunari. Ekainaren 7an izan zen Narbarte, Legasa eta Oieregikoen besta haundia. Goizean BKZren eskutik aisialdi ekintzak izan zituzten eta aurten, lehenbiziko aldiz, herri krosa egin zen. 8,6 kilometroko ibilbidea Narbarteko plazan hasita, Oieregi eta Legasan barna pasatu zen. Guzira 40 inguru parte-hartzaile izan ziren, gehienak gizasemeak. Sailkapen orokorrean emakumezko bakarra ageri zen: Esther Iriarte narbartearra.

Gizonezkoetan, Rafa Maritxalar lesakarra izan zen bizkorrena; Pasai Donibaneko Iñaki Lopetegi bigarrena eta Patxi Iratzoki igantziarra hirugarrena. Antolatzaileek Bertizaranako lehenbizikoak txapela eta ardoa jasoko zituela iragarria zutenez, horrek ikusmina piztu zuen. Azkenean, Narbarteko Fermintxo Oteizak lortu zuen sari hori. Sailkapen orokorrean bederatzigarrena izan zen. Mitxel Aginaga narbartearra izan zen Bertizaranako bigarrena eta Joseba Elizagoien narbartearra hirugarrena. Sari banaketaz gain, kirol materialak eta eskualdeko produktuak zozketatu ziren.

Lasterketa akituta, dantzak izan ziren, tartean Dantza Luzea. Duela hiru urte berreskuratu zuten dantza hau. Ondotik bazkaria egin zuten Legasan eta bazkalondoan giroak segitu zuen.





Argazkiak: ONDIKOL

**Bertizaranako Eguneko kroseko sarituak eta Dantza Luzean atera zirenak.**




LEITZA

# Irailaren 6ra atzeratu dute aurtengo Zaldi Eguna

Eguraldi txarra eta kamioi-gidarien grebaren ondorioz hartu dute erabakia

Joseba URKIOLA

Ekainaren 14an ezin izan zen III. Zaldi Eguna egin. Arrazoi nagusiak ekain hasieran egindako euriteek eragindako egoera eta kamioilarien greba izan ziren. Batez ere eguraldiagatik hartu zen erabakia. Izan ere, maiatz erditik hasi eta ia etenaldirik gabe egin dituen euri jasek Zaldi Eguneko eskenatoki berezi den Inguruartea lokatzez eta urez hornituta utzi dute. Kamioilarien grebak ere, neurri txikiagoan bazen ere, eduki zuen bere zeresana. Zaldiak herrira ekartzeko, iragarrita zegoen zikiro jatea behar bezala kudeatzeko eta bestelako hainbat ekintza burutu ahal izateko kamioiak ezinbestekoak baitira.

Halere, 2006an sortu zen Zaldi Egunak 2008an ere edukiko du presentzia. Plazaola Partzuergoak eta Aurrera Perra Taldeak iragarri dutenaren arabera, irailaren 6an ezarri dute hitzordua.



Argazkiak: Joseba URKIOLA

### *Ahaztuko ez dugun eguna*

**Aurtengo ekainaren 15a herritarrek nekez ahantziko duten eguna izanen da. Eskupilotako piramidearen puntan dauden bi herriko semek, Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak Leitzako izena lau haizeetara zabaldu dute, Euskal Herrian zein kanpoan. Aurretiaz ere buruz buruko txapelketa herri bereko bik jokatzeko aukera izan dute, baina nekez uka daiteke aurtengo hau berezia izan dela. Partidaz gaindi, herriko eta Leitzara gerturatutakoek gogotik gozatu zuten. Arratsalde partean Donostiara abiatutako autobus andana, euriz eta malkoz zipriztindutako ongi etorri beroa edota mila lagunek festa gosez betetako kiroldegia izan daitezke sortu zen giroaren adibide. Egun batzuetako atsedenaren ostean, bi heroiek udako birari ekin diote. Udako lehen lehiaketa nagusia Sanferminetako torneoa izanen da. Ikusteke egonen da, Labrit pilotalekua leitzarrez topera hornitzen den.**

### *Bai Euskarari*

69 enpresa, saltoki eta era guztietako entitateek eskuratu dute aurten Bai Euskarari Ziurtagiria Leitzaldean. Orain dela bost urte eman zioten hasiera euskararen normalizaziorako Bai Euskarari Akordioari, eta geroztik urrats esanguratsuak eman dituzte. Horren harira, *«konpromisoaren bitartez egunerokoan eragiteko urtez urte ematen diren urratsak oso garrantzitsuak direla»*, esan zuen Rober Gutierrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak hilaren 7an egindako Ziurtagiriaren banaketa ekitaldian. Leitzan, herriko eta Aresoko Ziurtagiriak banatu ziren.

EUSKARA

## Erregistro zibilak euskaraz egin ahal izatea eskatu dute 33 alkatek

ttipi-ttapa

Behatokiak eta Nafarroako 33 alkatek erregistro zibilak euskaraz egin ahal izateko baliabideak eskatu zituzten ekainaren 18an Nafarroako Diputazioaren atarian. Erregistroetako inskripzioak euskaraz egiteko programa informatikoaren euskarazko bertsioa eskatu zuten. Izan ere, uda baino lehen erregistroetako inskripzioak modu informatizatuan egiten hasteko asmoa du Gobernuak, eta horretan euskara aintzat hartzea nahi dute hainbat herrik. Hauek dira Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilariari zuzendutako eskaera-gutuna sinatu duten udalerriak: Anue, Araitz, **Arano**, **Arantza**, Arbizu, **Areso**, Arruazu, Basaburua, Betelu, **Bera**, **Baztan**, **Beintza-Labaien**, **Bertizarana**, **Donamaria**, Ergoiena, **Etxalar**, **Goizueta**, **Igantzi**, Imotz, Iruntzun, Lakuntza, Lantz, Larraun, **Leitza**, Lekunberri, **Lesaka**, **Oitz**, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Uharte-Arakil, **Urrotz** eta **Zubieta**. Horiez gain, bertze zenbait herritatik gutuna zuzenean igorri dute aipatu Departamentura.





GOIZUETA

# Herritar bat kantxan Atanoko buruz buruko finalean

## Angel Salaberria epaile izan zen Bengoetxea-Barriola partidan

Esteban AROTZENA

Aurreko zenbait alditako protagonismoa ez du izan gure herriak jokatu berri den pilotako buruz buruko finalean. Azken bost urteetatik lauretan Aimarrek ordezkatu du herria pilotaren festa haundian, eta aurtengo honen hutsegitea ongi etorri zaio Angel Salaberriari, bera izan baitzen Bengoetxea eta Barriolaren arteko partidako bi epaile printzipaletatik bat. Herri berekoak izanik, Salaberriak ez zuen finala epaitu izanen Olaizolatarren bat tartean izan baldin bazen. Epaileen erakundeko arautegiak omen dio hori.

Ikaragarrizko poza hartu omen zuen Angelek finaleko epaile izendatu zutela esan ziotenean. LEP.M Esku Pilota Enpresen Ligak dioenez, 50 urtetik goitikoak ezin dira txapelketa ofizialeko partidetako epaile izan, eta herriko albinteak 47 badauzka dagoeneko. Beraz, bere azken aukeretako baten aurrean zegoen. Gustura gelditu zen, gainera, egindako lanarekin, ez baitzuen inolako arazorik izan partidan zehar.

### *Ixkibi ekitaldiz gainezka*

Dagoeneko egindako bertso afaria eta globo aerostatikoen igoeraren bestaz gain, beste ekitaldi batzuk egiteko asmotan dira Ixkibi kanpinekoak. Larunbatean, hilak 28, esaterako, Ikatzolako Bordako Edurne Agirrezabalak *Ogiyik karri etzun semia* obra antzeztuko du 23:00etan. Uztailaren 5eko 16:00etatik aurrera, berriz, mus txapelketa jokatuko da. Sari ederrak izanen dituzte lau lehenengo bikoteek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Garrantzi haundiko partidak epaitu ditu Angelek.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

### *Eskolaren 25. urteurreneko besta*

**Andres Narbarte *Xalto* eskolaren 25. urteurrenaren harira, besta eguna egin zen ekainaren 14an. Baina horrez gain, eskolarekin batera 25 urteotan bertan lanean aritu diren Maribel eta Korok ere omenaldia jaso zuten.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu dira*

**Goizueta eta Aranoko Bai Euskarari Ziurtagiriaren 2008ko urteari dagokion ekitaldia hil honen 7an egin zen gure herrian. Fernando Goia udal ordezkariak bere hitzaldian esan bezala, herriko merkatari, ostalari eta elkarte gehienek euskararen aldeko apostua egin dute Goizuetan eta pixkanaka-pixkanaka hartutako konprimisoak betez, euskaraz funtzionatzeko ahaleginak egiten ari dira. Ahalegin horren emaitza ikusi egiten da.**

OSTALARITZA

# Ostalaritzako manipulatzaile txartela eskuratzeko ikastaroa Leitzan

ttipi-ttapa

Cederna Garalur Elkarteak eta Nafarroako Ostalarien Elkarteak antolatuta, ostalaritzako manipulatzaile txartela lortzeko ikastaroa eginen da Leitzan uztailaren 2an. Ikastaroa Erleta Eskolan eginen da, 16:30etik 20:30era eta 30 euro ordaindu beharko dira horretarako. Izena emateko epea ekainaren 26an, ortzegun honetan, bukatuko da. Bitartean, parte hartu nahi izanez gero, 948 625122 telefonora deitu beharko da, 9:00etatik 14:00etara. Gisa berean, diru-sarrera Banco Vasconiako kontu honetan egin beharko da, hilaren 26a baino lehen: 0095 4675 75 0600074708. Egun horretatik aitzinera, deitu egin beharko da lekurik ote dagoen jakiteko. Gehienez 25 lagunentzako lekua izanen da ikastaroan, eta guttienez 15entzat. Ikastaroa egindakoan, manipulatzaile txartela eskuratzeko ezinbertzekoa izanen da Nortasun Agiria eta boligrafoa eramatea. Horrez gain, aipatu, ikastarora berandu iristen denak ezin izanen duela ikastaroa egin eta, ordaindutakoa ez zaiola itzuliko.





## ARESO

# Ludoteka zerbitzua eskainiko da uztailean egunean bi ordu eta erdiz

### Zuriñe eta Irantzu izanen dira begiraleak

Juana Mari SAIZAR

Guraso Elkarteak ludoteka zerbitzua antolatu du uztailerako. Bi ume talderentzat izanen da eta proiektua aurkeztu ondoren, Zuriñe eta Irantzu izan dira aukeratuak. Eurek izanen dira, beraz, egunero bi ordu eta erdiz herriko gaztetxoez arduratuko direnak.

### *Industrialderako sarbidea itxita*

Asteburu honetan, ekainak 28 eta 29, industrialderako sarbidea itxita egonen da brea bota behar dutelako. Kamiolarien grebaren eta eguraldi txarreran ondorioz, hainbatetan atzeratu dira lanak eta ea oraingo honetan egiten duten.

### *Herriko langilea*

Hiru hilabeterako herriko lanetan aritzeko langilea kontratu du Udalak: Itsaso. Zortzi orduko lanaldia izanen du, eta bere soldataren zati bat Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak –sei ordu eta erdi– ordainduko du eta gainerakoa –ordu bat eta erdi– Udalak.

### *Erremonte eskola*

Erremonte eskola izanen dugu heldu den ikasturtean. Areso, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak 2008-2009 denboraldian martxan paratuko duen erremonte eskolaren aurkezpena egin zen ekainaren 13an Lekunberrin. Erremonte eskola Kirol Mankomunitatearen eta Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioaren arteko elkarlaneko hitzarmenaren ondorioa da. Ekitaldian zenbait erremontista profesional ere izan ziren eta aurkezpenaren ondotik, partida jokatu zuten. Zeberio II.a eta Gaztelu leitzarra, Xanti Uterga eta Patxi Olazar doneztebarren kontra aritu ziren.



Argazkia: Juana Mari SAIZAR

**Herritarrak auto trialean**

**Doneztebeko 4x4 auto trialean Xabi eta Txominek bigarren postua lortu zuten. Beste hiru topaketetan parte hartu eta emaitza onak eskuratzeko asmoa ere badutela adierazi digute. Beste bikote batek, ordea, Carolina eta Iosuk, zorte txarra eduki zuten Donezteben, autoa hautsi egin baitzitzaien. Halere, gogoz daude beste aldietan beren lana erakusteko.**



Argazkia: Juana Mari SAIZAR

**Gimnasia ikastaroak**

**Udaberri hasieran Erasonea etxean, Olaia irakaslearekin gimnasia ikastaroa hasi zen. Arnasketa eta gorputzeko muskulu guztiak oxigenatu eta mugitzea da helburua, eta Yoga, Tai-Chi eta Chi-Cunen nahasketa bat da. Parte-hartzaileak oso pozik daude eta jarraitzeko asmoz.**

## GIZARTEA

# Kalamuaren azoka eginen da uztailaren 3tik 5era Iruñean

ttipi-ttapa

Orain arte Bartzelonan egiten bazen ere, aurten Highlife BCN kalamuaren azoka Iruñean eginen da uztailaren 3an, 4an eta 5ean, Baluarten, SanFerWeed by Highlife BCN izenarekin. RCN-NOK Nafarroako Ordezkaritza Kanabikoak taldeak 2008a ekonomia kanabikoaren urtea izanen zela aldarrikatu zuen, eta kalamuari eta haren deribatuei buruzko halako azoka bat antolatzeko asmoa azaldu zuen. Feriaren helburua kalamuaren erabilera alternatiboak sustatzea da, eta informazioaren eremuan kalamuari buruzko eztabaida ere ireki nahi da. Kalamuaren kontsumoak ekar ditzakeen arrisku deribatuak ere murriztu nahi dira.

Mundua zure esku jartzen dugu

VIAJES MARFIL & VACACIONES



VIAJES MARFIL & VACACIONES

IRUÑA
BARAÑAIN
CORDOVILLA
TUTERA

18 egun

# Argentina osoa

## Azaroaren 20tik abenduaren 7ra

Informazioa 948 206 246







**Azaroak 20. NAFARROA-MADRID-BUENOS AIRES**
Iruña [illegible] Buenos Aires

**Azaroak 21. BUENOS AIRES**
[illegible] Plaza de Mayo [illegible] Arratsaldea libre

**Azaroak 22. BUENOS AIRES**
[illegible] Arratsaldea libre

**Azaroak 23. BUENOS AIRES-TRELEW**
Trelewra hegaldia. [illegible]

**Azaroak 24. VALDES PENINTSULA**



Valdes Penintsulara [illegible]

**Azaroak 25. PUNTA TOMBO-USHUAIA**
[illegible] Ushuaiara.



**Azaroak 26. USHUAIA**
[illegible]

**Azaroak 27. USHUAIA-EL CALAFATE**
[illegible] Hegaldia El Calafatera

**Azaroak 28. GLAZIARREN PARKE NAZIONALA**
[illegible]



**Azaroak 29. PERITO MORENO BARILOCHE**
[illegible] Perito Moreno [illegible] Hegaldia Barilochera



**Azaroak 30. BARILOCHE**
Circuito Chico [illegible] Nahuel Huapi [illegible] Cerro Bayo eta Rio [illegible]



**Abenduak 1. BARILOCHE-BUENOS AIRES**
[illegible] Cerro Campanario eta Barilochera itzulera. Buenos Airesera hegaldia

**Abenduak 2. BUENOS AIRES**
[illegible]



**Abenduak 3. BUENOS AIRES**
[illegible]

**Abenduak 4. BUENOS AIRES-IGUAZU**
Hegaldia Iguazura. [illegible]

**Abenduak 5. IGUAZU UR-JAUZIAK**
[illegible]



**Abenduak 6. IGUAZU-BUENOS AIRES**
[illegible]

**Abenduak 7.**
[illegible]
BIDAIAREN BUKAERA

ez galdu aukera hau!

**3.683€**
+ tasak

[illegible]

BAZTAN

# Azpilkuetako Sanferminak uztailaren 4tik 7ra

Igande arratsalderako ikuskizun sorpresa bat iragarri dute antolatzaileek



ARTXIBOA

**Argazkia duela urte batzuk ateratakoa da, baina seguru aurten ere ez dela girorik faltako.**

### Ortzilaria 4

**12:00etan** bestei hasiera emateko txupinazoa. **16:00etan** barretako kamaren betetzea eta prestaketa. **21:30ean** Baztan Zopak herriko elkartean, JOXE ANGEL akordeoilariak alaituta. **00:30etik aitzinera** dantzaldia JOXE ANGEL akordeoilariarekin. **07:00etan** gosaria Uxoan.

### Launbetia 5

**10:00etan** argi soinuak herrian barna. **16:00etan** mus txapelketa. **18:30ean** pilota partidako final haundia. **20.00etatik 22:00etara** eta **01:00etatik 05:00etara** dantzaldia OIHERGI taldearekin. **05:00etatik aitzinera** musika gazteen ostatuan eta ondotik gosaria Uxoan.

### Igandea 6
#### Haurren Egune

**10:00etan** argi soinuak herrian barna. **11:00etan** plater-tiroketa txapelketa. *14:00etan* gazteen bazkaria eta partxis txapelketa. **16:30ean** haur, gazte eta denentzat ikuskizuna pilotalekuan. Antolatzaileek sorpresa bat izanen dela iragarri dute. **20:00etatik 21:00etara** dantzaldia FRANTZISKO akordeoilariarekin. **21:00etatik 21:30era** ezkil jotzea. **22:00etan** afaria. **00:30etik aitzinera** gaupasa FRANTZISKO akordeoilariarekin.

### Astelehena 7
#### San Fermin Egune

**08:00etan** zikiroa egiteko sua piztuko da. **09:30ean** gosaria eta zikiroa prestatzen hasiko da. **11:00etan** Meza Nagusia SanFerminen omenez. **12:00etan** luntxa herriko elkartean. **14:00etan** zikiro jatea frontoian JOXE ANGELek alaituta. **21:00etan** afaria pilotalekuan. **23:00etatik aitzinera** dantzaldia JOXE ANGELekin eta ondotik *Gaixoa ni* kantatuz bestei akabera.



SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN


ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458

Maderas GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

· Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
· Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
· Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
· Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

MENDI ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea

T: 948 453 050
N-121-B, 66. km
AMAIUR

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Tfnoa.: 948 581 468
Mug.: 630 354 818
Santiago, 59 2C
ELIZONDO

BAZTAN

# 14,5 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak 2008rako

## NaBairen aldeko eta UPNren kontrako botoekin onartu da

**ttipi-ttapa**

NaBairen aldeko sei botorekin —Santiago Aldako jarduneko alkatearen kalitateko botoa tartean— eta UPNren kontrako bertze seirekin onartu zen ekainaren 16an 2008rako aurrekontua. 14.470.730 euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak. Eginen diren inbertsioen artean, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdirentzat izanen den espazio eszeniko bat egitea aurreikusi dute. Horrek eta Francisco Joaquin de Iriarte zaharren egoitzarako onartutako gastuak eragin du UPNren kontrako botoa.

Espazio eszeniko horren proiektua egiteko 222.000 euro bideratuko dira aurten. Antza, auditorio bat izanen du, 400 jarleku baino gehiagorekin.

Aurrekontu horrez gain, Baztan Ikastolara aparteko 576.943,18 euro bideratuko dira eta Francisco Joaquin de Iriarte zaharren egoitzara 1.973.299 euro. Gainerakoan, 14,5 milioi euroko kopurutik zati handi bat azpiegitura lanetarako izanen da: 2,5 milioi euro Arizkun, Erratzu eta Oronoz-Mugairin eginen diren azpiegitura obretarako. Saneamendu, hornidura eta zolatze-lanen gastuaren %62a Gobernuak bere gain hartuko du. Giltxaurdi futbol-zelaiko lanetarako 1,2 milioi euro bideratuko dira; Lekarozko ur hornidurarako 610.000 euro; Baztan pilotalekuko lanetan 450.000 euro; pista eta bideetan 420.000 euro eta errekaren saneamenduan eta uraren kanalizazioan 288.400 euro.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

### *Emilio Majuelo Erratzun*

**Erratzuko Etxelebertzeko Txokoa elkartean Emilio Majuelo Nafarroako Unibertsitate Publikoko historia irakasleak bere azken lanaren aurkezpena egin zuen: sortzez erratzuarra zen Ricardo Zabala sindikalistaren biografia soziopolitikoa. Lagun taldean, Emilio Majuelok bere liburuaren laburpena eta nola eta zergatik landu, ikertu zuen sindikalista eta batez ere, sindikalista honen belaunaldiaren historia azaldu zuen. Zergatik *La generación del sacrificio* (Txalaparta) izenburua eta ez Ricardo Zabalzaren biografia? Edozein herriko historia garaiko jendeak osatzen duelako, ez pertsona bakarrak edo bik. Zabalzaren inguruan lortu duen materialak lan batendako baino gehiagorako ematen duenez, bi liburutan banatuko du. Oraingoa biografia soziopolitikoari buruzkoa da, eta lantzen ari dena bere biografia sindikalista.**

FLASH

### *Baztandarren Biltzarreko tonbola martxan*

Baztandarren Biltzarra besta uztailaren 20an izanen bada ere, tonbola dagoeneko martxan dago. Sariak zuzenak izanen dira eta eskualdeko merkataritza eta zerbitzuek emanak. Horrez gain, baztandarren egunean 1.560 euroko sariaren zozketa eginen da.

### *'Baztangoa' inauguratua*

Baztandarra kooperatibak urte hasieran bere gasnategia martxan paratu zuen. Milioi euroko aurrekontuarekin (Gobernuak 266.513 euro eman ditu) kooperatibaren asmoak argia ikusi zuen eta momentuz, merkatua Hego Euskal Herrira eta Errioxara zabaldu badute ere, etorkizunean estaturat zabaldu nahi dute. Hain zuzen, hilaren 6an inauguratu zen ofizialki gasnategia. Ingurumen eta Landa Garapen kontseilaria den Begoña Sanzberro almandoztarra, Udaleko zinegotziak, kooperatibako agintariak, gonbidatuak, eta inportanteenak, artzain eta nekazariak izan ziren ekitaldian. Arizkungo apaizaren bedeinkapenarekin, Patxi Larralde txistularia eta Iban Durrenaren aurreskuarekin, inauguratutzat eman zen gasnategia.







egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011



BAZTAN

# 57 Bai Euskarari Ziurtagiri banatu dira Baztanen

Ekainaren 14an egindako ekitaldian hainbat eragilek parte hartu zuen



ARGAZKIA: ZIURTAGIRIAREN ELKARTEA

**Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketan parte hartu zutenak.**

ttipi-ttapa

57 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek eskuratu dute aurten Bai Euskarari Ziurtagiria Baztanen. Horietatik seik *Zerbitzua eta lana euskaraz* maila lortu dute; 23k *Zerbitzua euskaraz* maila; eta 28k *Bidean* maila. Ekainaren 14an egin zen ekitaldian Xabier Mendiguren Ziurtagiriaren Elkarteko bokalak duela bortz urte Baztanen Bai Euskarari Akordioa abiatu zenetik egin diren urrats esanguratsuak azpimarratu zituen.

Martin Garde, Baztango euskara zinegotzia, Maria Mendiburu Baztan ikastolako irakaslea eta euskalgintzako ordezkaria, eta Eva Olaizola Elizondoko Gaztetxeko kidea eta eragilea ere ekitaldian izan ziren. Eurek ere euskararen normalizazioaren bidean urratsak ematen jarraitzeko beharra nabarmendu zuten.

### *Gaztetxoen kulturarteko topaketa*

Kulturarteko Elkarrizketaren Urtea egiten ari dira aurten Europan. Ospakizun horren harira, Bidelagun Elkarteak gaztetxoen kulturarteko topaketa antolatu du Lekarozko Aterpean, abuztuaren 29tik 31ra.

12 eta 16 urteko neska-mutikoek parte hartzen ahal izanen dute eta horretarako 948 581327 edo 679 435174 telefonoetara deitu beharko dute ekainaren 30a baino lehen. 30 euro ordaindu behar dira. Talde mugatua izanen da, 20 lagun gehienez eta taldea gidatzeko monitoreak izanen dira.

Topaketa honen helburu nagusia inguruan bizi diren nerabeak elkar ezagutu eta lagun egitea da, egun batzuz bederen, beraien jatorria zein den atzenduta. Horrez gain, tailer eta jarduera ezberdinen bitartez, herritarrak kultur elkartrukearen aberastasunaz sentsibilizatzea da helburua. Azkenik, kulturen arteko antzekotasunak bilatu eta ezberdintasunak ezagutu, errespetatu eta baloratu nahi dira.

Horretarako hainbat ekintza izanen dituzte gaztetxoek: dinamikak, kometa lantegiak, jokoak, zinemaforum, Disney gaua, graffitiak eta ongi akitzeko, zapore besta, kulturarteko bazkariarekin.

URDAZUBI

# Turismoa indartzeko Ficoban aurkeztu dute herria

ttipi-ttapa

Ekainaren 20tik 22ra Irungo Ficoba erakustazokan *Ongi etorri* erakustaldia egin zen. Turistei begira, zer ikusi, zer egin, non erosi, non jan eta non edan dezaketen erakutsi zitzaien hurbildutakoei. Urdazubiko herria eta Dantxarineako merkatarien elkartea ere han izan ziren euren eskaintzak egiten. Guztien ordezkari Goio Hualde joan zen.

### *Arcachonen*

Zugarramurdi eta Urdazubiko Guraso Elkarteak antolatuta, haur eta gurasoak Frantziako Arcachonera ateraldia egin dute berriki. 09:30ean atera ziren herritik eta 21:00etan bueltatu. Hango igerilekuetan egon ziren, eta eguraldi ederra egin zuenaren seinale denak gorri-gorri eginak itzuli ziren.

BAZTAN
zurgindegia
PREZIO LEHIAKORRAK
• Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
• Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
• Armairu enpotratuak
• Sukalde eta bainugelarako altzariak
Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367 • M. 649 438 210

MONTXO OSTATUA

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA · URDAZUBI

SARA

# Etxeko produktuak erosteko aukera izanen da ortzeguneko merkatuetan

## Feriak ere eginen dira eta lehena uztailaren 13an izanen da

Xan HARRIAGUE

Iaz bezala turismo bulegoak merkatuak antolatu ditu udako ortzegun goiz guziz. Uztailaren 3tik aitzinera, eta agorrilaren hondarra arte, hemezortzi postu plazan ezarriko dira etxeko edo eskuz eginiko produktuen saltzeko. Horietariko hamaikak janariak salduko dituzte, gasnak, jogurtak, barazkiak, fruituak, ahatekiak eta arnoak, bertzeak bertze, eta bertze zazpiek arropak, argazkiak eta eskulanak. Tartean herritar batzuk arituko dira: Oreka gasnategia, Irabazi Arte ustiapen elkartea, Alain Albistur hainbat lekutatik ekarritako gasnekin, eta Arantxa Leizagoien bere argazkiekin.

Astean behin eginen diren merkatuez gain, usaian bezala, feriak eginen dira hilabetean behin. Uztailekoa 13an izanen da, eta agorrilekoa 24an kontrabandisten lasterketaren kari. Horietan saltzaile eta ekoizle gehiago bilduko dira, 40 bat inguru.

### Arte erakusketa

Gan den eriaroaren 21az geroztik eta uztailaren 4a arte margo, harri zizelkatu eta argazki erakusketa zabalik da Lur Berri gelan. Zortzi dira erakusketan parte hartzen duten artistak eta horien artean hiru herritar daude: Ibartxoroko Maritxu Arburua margoekin eta Kaikuineko Urbistondo aita-semeak harri zizelkatuekin. Sartzea dohainik da.

### Gas sarean sartzeko aukera

Egun hauetan herriko gasaren sarean moldaketa lanak egiten ari dira plazan eta sarean sartu nahi dutenek zenbaki hauetara deitu behar dute: 0671599956 etxe arruntentzat edo 0627286225 saltoki edo jatetxeentzat.



Argazkia: Maite ARBURUA

***Ikastola eta eskolen bestak***

**Ikastolaren besta ospatu zen joan den igandean zortzi. Jende anitzek parte hartu zuen eta 150 bat bazkari zerbitzatu zituzten. Gan den igandean, berriz, eskola publikoaren txanda izan zen eta heldu denean Saint Josephe eskolarena izanen da. 20:00etatik aitzinera ikuskizuna eskainiko dute haurrek eta ondotik afaria izanen da. Argazkian ikastolako haurrak ageri dira.**



Utzitako argazkia

***Urdakoitzeko zuhaitzak plastikorik gabe***

**Eriaroaren 8an hamabost bat lagun bildu ziren Urdakoitzen duela urteak landatuak izan ziren zuhaitzei babesteko plastikoa kentzeko. Lana egin eta gero denak elkarrekin gosaldu zuten Teilariko Ardi Bordan**












## SENPERE

# Plazako errota denbora luzean ibiliko da oraino gogo haundia baitute jabe berriek

### Aintzirako kali-jokoko ostatua osoki erre da erearoaren 19ko goizaldean

**Franck DOLOSOR**

Plazako errotako tresneria badabil biraka eta biraka. Berriki ospatu den erroten egunean bezala, udan ere bisitariak hartuko ditu XI. mendean eraiki zen errotak. Denbora luzean, herriko bihotza zen errota, hantxe egiten baitzen oinarrizko jatekoa: ogia. Jean Bruno Etcheverry da errotako jabe berria. Plazer eta gogo haundiarekin hartu du segida ttikittikitatik ezagutzen baitu errota hau. Familiaren segida hartu du eta badaki lan haundia duela. Lehenik eraikina bera zaindu behar da eta inguruan den kilometra bateko ur-bideak ere lana ematen du. Jean Bruno eta bere familia gogo haundiarekin lotu dira lanari eta hemendik goiti errota biraka ibiliko da.

### *Sutea*

Suak osoki desegin zuen aintzirako kali-jokoko ostatua gan den erearoaren 19an, 03:00-etan. Jabeak gas botilak hestea ahantzi zuen arratsean eta gauean gas ixuria izan zen. Hozkailua bere baitatik piztu zelarik, aintzira osoan entzun zen zapartatzea gertatu zen. Berehala sua lotu zen eta kalte haundiak sortu zituen. Su-hiltzaileek laster itzali zuten sua baina kalte haundiak izan ziren eta ostatuak ezin izanen ditu ateak ireki ondoko asteetan.



Argazkia: STUDIO DE LA NIVELLE

***Biharko dantzariak***

**Zirikolatz euskal dantza taldeak gazte ainitz bildu izan du urteetan eta geroan ere dantzari onak izanen ditu. Berriki Haurrak Dantzan ikusgarria eskaini dute guraso eta lagunen aitzinean. Udan astearte oroz agertuko dira arratsetan herriko pilota plazan.**



Argazkia: STUDIO DE LA NIVELLE

***20 urtekoen biltzarra***

**Berriki elgartu dira bi hamarkada bete dituzten herriko gazteak.**

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

# EZKONTZAK

**Iñaki Altzuiet Torres** eta **Miren Olartzabal Ibarra**, Urdazubikoak, maiatzaren 24an Urdazubin.
**Iñigo Iparragirre Larrañaga** eta **Nagore Arretxea Olartzabal**, Iturengoa eta Berakoa, maiatzaren 31n Beran.
**Oskar Martin Aliaga Risco** eta **Magali Esmeralda Barbaran Askoi**, Perukoak, ekainaren 6an Beran.
**Jose Miguel Bengoetxea Aranburu** eta **Nagore San Sebastian Eratsun**, Etxalarkoa eta Berakoa, ekainaren 7an Beran.
**Miguel Iparragirre Arburua** eta **Iciar Aranburu Altzugarai**, Etxalarkoa eta Lesakakoa, ekainaren 7an Lesakan.
**Jesus Mª Aranburu Altzugarai** eta **Mª Jose Elgorriaga Uterga**, Lesakakoa eta Donibane Lohizunekoa, ekainaren 12an Lesakan.
**Fco Javier Sanchez Sanchez** eta **Ana Esther Fenollosa Culla**, Salamancakoa eta Valentziakoa, ekainaren 14an Lesakan.
**Iñaki Goikoetxea Gurrutxaga** eta **Maddi Rozas Elizalde**, Donostiakoak, ekainaren 14an Etxalarren.
**Rafael Joaquin Bolaños Quesada** eta **Cenovia Lopez Caballero**, Madrilgoa eta Perukoa, ekainaren 7an Elizondon.
**Jose Javier Sarratea Urrutia** eta **Izaskun Garmendia Mikelarena**, Iruñekoa eta Elizondokoa, ekainaren 7an Elizondon.
**Bernard Errandonea Bazterrika** eta **Itsaso Irigoien Berrueta**, Berakoa eta Lesakakoa, ekainaren 7an Igantzin.
**Urko Goizueta Sagastibeltza** eta **Gemma Urdaniz Garcia de Madinabeitia**, Leitzakoak, maiatzaren 31n Leitzan.
**Ruben Caballero Sanchez** eta **Miren Nekane Gaztañaga Gonzalez**, Leitzakoak, ekainaren 3an Leitzan.

# SORTZEAK

**Aiur Jimenez Prieto**, Berakoa, ekainaren 3an.
**Uxue Lekuona Agirre**, Berakoa, ekainaren 7an.
**Ekaitz Loiarte Otxandorena**, Zubietakoa, ekainaren 6an.
**Hodei Aizpurua Larrea**, Lesakakoa, ekainaren 10ean.
**Nahia Bidart Plaza**, Lekarozkoa, ekainaren 2an.
**Naia Iñarrea Bosh**, Elizondokoa, ekainaren 3an.
**Diana Colmenero Malagon**, Elizondokoa, ekainaren 3an.
**Eider Fernandez Garde**, Gartzaingoa, ekainaren 6an.
**Kattalin Mentaberri Zelaieta**, Igantzikoa, ekainaren 2an.
**Beñat Enciso Lamuedra**, Leitzakoa, ekainaren 8an.
**Betti Zamora Goietxe**, Sarakoa, ekainaren 3an.
**Ximun Zamora Goietxe**, Sarakoa, ekainaren 3an.

# HERIOTZAK

**Santiago Villares Bidart**, Urdazubikoa, ekainaren 6an, 80 urte.
**Bizente Apezetxea Perurena**, Goizuetakoa, ekainaren 13an, 77 urtekoa.
**Juana Larzabal Etxeberria**, Zubietan, ekainaren 11n, 76 urte.
**Delicia Muru Etxegoien**, Iruritakoa, ekainaren 5ean, 89 urte.
**Pascual Oharriz Aldabe**, Arraiozkoa, ekainaren 8an, 90 urte.
**Fernando Lopez Trantxe**, Elizondokoa, ekainaren 8an, 66 urte.
**Claudia Alkasena Barrenetxe**, Arizkungoa, ekainaren 9an, 93 urte.
**Pablo Eraso Olaetxea**, Elizondokoa, ekainaren 10ean, 89 urte.
**Miguel Zabaleta Gogortza**, Leitzakoa, ekainaren 4an, 81 urte.
**Teresa Irigoien Gaintza**, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 7an, 94 urte.
**Mariane Aduriz**, Sarakoa, ekainaren 4an.
**Mixel Larria**, Sarakoa, ekainaren 5ean.
**Marie Lamothe**, Sarakoa, ekainaren 8an.



**Joxemi**
**JORAJURIA TELLETXEA**
Elgorriagan, maiatzaren 27an

*Gure artetik joan zina*
*eta zaila eginen zaigu*
*min hau gainditzia*
*baina Gottikobordа bazterretan barna*
*gelditukо da*
*zure izaeraren arrastoa*

ZURE FAMILIA

**Juan Tomas**
**ETXABIDE IGANTZI**
**'ETXABIDE'**

*Eder basoan haritza*
*haren aldean garitza.*
*Fruitu antzera ontzen da hemen*
*gizasemeen bizitza.*
*Sarri arte Juanto*

AGINAko LAGUNAK
LESAKA



**Benito**
**GOIA ETXEBERRIA**
Erroma/Lesaka, ekainaren 6an

*Umorez eta alaitsu*
*egoten ginen elkarrekin,*
*eta oroitzapen ahaztezin horiek*
*beti geldituko dira gurekin.*

ZURE FAMILIA

AIZKORA

# Ander Erasun eta Jon Rekondo txapeldun Urrezko Aizkoran

## 18 eta 23 urtez azpikoetan izan dira irabazle, eta Larretxea azpitxapeldun elite mailan

ttipi-ttapa

Hiru txapeletik bi eskualdean. Ekainaren 7an jokatu ziren Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan Urrezko Aizkolarien finalak, elite mailan eta 23 eta 18 urtez azpikoetan. Hiru kategorietan aritu ziren eskualdekoak eta azkenean bi txapel lortu zituzten.

18 urtez beherakoetan, Ander Erasun aurtiztarra guttigatik nagusitu zitzaion Oihan Larretxea beratarrari. 16:03ko denbora egin zuen Malerrekakoak, eta 17 segundo gehiago behar izan zituen Berakoak. Proba guztietan irabazi zuen Erasunek, baina Oihanek sasoian dagoela erakutsi zuen.



ARGAZKIA: MIKEL ERASUN

**Jon Rekondo leitzarra eta Ander Erasun aurtiztarra Urrezko Aizkorako txapela soinean.**

23 urtez azpiko kategorian, berriz, Leitzara joan zen txapela. Jon Rekondok Ugaitz Mugertza mutrikuarra izan zuen aurrez aurre eta leitzarrak ere proba guztiak irabazi zituen. 18:34ko denbora egin zuen Rekondo leitzarrak eta 20:48koa gipuzkoarrak.

**ELITE MAILAN NAZABAL TXAPELDUN**

Elite mailako finala jokatu zen azkenik, eta Floren Nazabalek hirugarrenez segidan jantzi zuen txapela, bere laugarrena. Bera zen faboritoa baina lana gogotik egin behar izan zuen Donato Larretxea menderatzeko. Lehenbiziko proba —45 ontzakoa zeinek kolpe guttiagotan moztu– irabazi egin zuen aranztarrak, baita hirugarrena ere —kanaerdikoa zutik moztu—. Gainerakoak Ebarri-Aranatzekoak bereganatu zituen. Azkenean, 20:53ko denbora eginez Nazabalek jantzi zuen txapela; Larretxeak 22:10ean bukatu zituen lanak.

PILOTA

# Bengoetxea VI.ak buruz buruko bere lehen txapela jantzi du

## Abel Barriola herritarrari 22 eta 11 irabazi zion

ttipi-ttapa

Esku pilotaren txapelik haundienak jabe berria du: Oinatz Bengoetxea, 24 urte abuztuan eginen dituen Leitzako gaztea. Txapelketa guztian lortutako garaipenak ez direla kasulitatearen fruitu izan frogatu zuen ekainaren 15ean Donostiako Atano III.a pilotalekuan. Sasoi ederrean, hutsik egin gabe, ederki jokatu zuen finaleko partida Abel Barriolaren kontra. 11 tantotan utzi zuen Barriola herrikidea eta txapela janzteko faboritoa.

Asier Gartzia lehengusua eta botilleroa ondoan, defentsan bikain aritu zen Bengoetxea VI.a, eta sotamanoarekin ere nagusitasunez jokatu zuen. Barriolari, berriz, urduritasuna nabaritu zitzaion, eta azken sei finaletan gertatutakoari aitzin ezin eginez. Buru makur eta penatuta atera zen kantxatik.

Edonola ere, bai Oinatz eta bai Abel, biak txapeldunak bailiran hartu zituzten herrian leitzarrek finalaren ondotik. Ongi etorria egin zieten, eta 1.100 bat lagun bildu ziren afarian.


ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Buruz buruko txapela soinean, ttikitako ametsa betea ikusi du Oinatz Bengoetxeak.**

SOKATIRA

# Lur Gaineko 600 kiloko bigarren saioa Lesakan jokatuko da uztailaren 5ean

## Aresokoak Bizkaiko eta Gipuzkoako bertze bortz talderen kontra ari dira lehian

ttipi-ttapa

Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketako 600 kiloko bigarren jardunaldia Lesakan jokatuko da uztailaren 5ean, larunbata. 680 kategoria bukatu ondotik, asteburu honetan hitzordu bikoitza izanen dute parte-hartzaileek. Larunbatean, hilak 28, 640 kiloko kategorian azken jardunaldia jokatuko da Mutrikun (Gipuzkoa). Horrez gain, igandean, ekainak 29, emanen zaio hasiera 600 kilokoari, Arratxun (Bizkaia). Lesakakoa bigarren saioa izanen da eta azkena San Cristobalen (Bizkaia) jokatuko da, uztailaren 12an.



ARTXIBOA

**Aresoko taldea da Lur Gaineko Sokatira Txapelketan parte hartzen ari den eskualdeko talde bakarra.**

Txapelketa hauetan bortzpasei talde ari dira parte hartzen eta horietan bakarra da eskualdekoa: Areso. 680 kiloko mailan bortzgarren gelditu zen, Goiherri A (Erandio, Bizkaia), Gaztedi (Laukiz, Bizkaia), Mutriku (Gipuzkoa) eta Getxoren (Bizkaia) ondotik. Goiherri B gelditu zen Aresoren gibeletik. Jardunaldi baten faltan, 640koan laugarrena da sailkapenean.

### 580 KILOKOA AZKEN TXAPELKETA

600 kilokoa bukatzean, Lur Gaineko azken hitzorduari ekinen diote, 580koari. Uztailaren 19an hasiko da lehia hori eta final handia Areson jokatuko da uztailaren 27an.

HERRI KIROLAK

# Iparraldeko Joku Torneoaren azken saioa jokatuko da igandean Orbaitzetan

## Eskualdeko 16 lagun ari dira parte hartzen

ttipi-ttapa

Ekainaren 14an abiatu zen Berriozarren VIII. Iparraldeko Joku Torneoa. Bigarren jardunaldia Igantzin egitekoa zen aitzineko asteburuan, eta hirugarrena eta azkena, igandean, ekainak 29, jokatuko da Orbaitzetan, 12:00etatik aitzinera.

Sei modalitate desberdinetan arituko dira parte-hartzaileak: koxkor biltzen, ingudea altxatzen, txingak garraiatzen, harria jasotzen, lastoa altxatzen eta zaku lasterketan. Liga sistema erabiliz, igande honetan jokatuko den jardunaldian erabakiko da dena.

Koxkor biltzen zortzi lagunetik bortz eskualdekoak dira: Iñigo eta Andoni Lasaga (Etxalar); Patxi Iratzoki (Igantzi), Fernando Etxegarai (Bera) eta Xabier Danboriena (Ziga).

Ingude altxatzen seitik bortz dira eskualdekoak: Lazaro Bujan (Leitza), Xabi eta Karlos Sein (Igantzi) Ander Mitxelena (Bera) eta Joakin Aioroa (Ituren).

Harria altxatzen Unai Bertiz (Sunbilla) eta Josetxo Urrutia (Leitza) ari dira lehian.

Lastoarekin hirutik hiru igantziarrak dira: Xabi eta Karlos Sein eta Oskar Telletxea.



ARTXIBOA

**Harri jasotzaileek 125 kiloko zilindroa, 112,5eko kubikoa eta 100eko bola bakoitza minutu batean jaso beharko dute. Argazkian Urrutia leitzarra ageri da.**

Txingarekin, azkenik, seitik bortz ingurukoak dira: Josetxo Urrutia, Lazaro Bujan eta Miguel Angel Sukuntza (Leitza), Joseba Petrirena (Bera) eta Jabier Galarregi (Etxalar). Aipatu, bertzalde, taldekako zaku lasterketan parte hartzen ari direnak Berriozarkoak direla.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

## OSPAKIZUNAK

### GORRAIZ

**Uztailaren 2an,** Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkartekoen besta.

### ELIZONDO

**Uztailaren 20an,** Baztandarren Biltzarra.

### LEKAROZ

**Abuztuaren 29tik 31ra,** Kulturarteko Elkarrizketaren Urtearen harira, Bidelagun Elkarteak antolatuta gaztetxoen kulturarteko topaketa. Parte hartzeko deitu 948 581327 edo 679435174 telefonoetara.

## IKASTAROAK

### LEITZA

**Uztailaren 2an,** Ostalaritzako manipulatzaile txartela lortzeko ikastaroa. 16:30etik 20:30era. Izena emateko epea ekainaren 26a. Xehetasun gehiago 27. orrialdean.

### AMAIUR

**Uztailaren 30etik abenduaren 14ra,** Amaiur eta Nafarroako Erresumako Gazteluak-ei buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Informazio gehiagorako: *www.ueu.org* edo *www.aranzadi-zientzia.org*en.

## ERAKUSKETAK

### SARA

**Uztailaren 4a bitarte,** margo, harri zizelkatu eta argazki erakusketa Lur Berri gelan.

## LEHIAKETAK

### BERA

**Uztailaren 25a bitarte,** lorez apaindutako balkoi eta leihoen lehiaketa. Xehetasunak 17. orrialdean.



## TELEBISTAKO TXOKOA




# 'Marimore' haurrentzako saio berria estreinakoz ttipi-ttapan

### ESKULANAK, MARRAZKI BIZIDUNAK, ZOZKETAK...

Badator *Marimore*! Eskulanak, marrazki bizidunak, zozketak... Etxeko ttikienek zer ikasi eta zerekin gozatu izanen dute uda honetan. Egitasmo berritzaile eta entretenigarri bati ekin behar dio **ttipi-ttapak** eta uztailaren 1ean saio berria estreinatuko du: *Marimore*. Asteartero, bazkalondoan, 14:00etatik 15:00etara bitartean Karmentxu Elizegi elizondarrak eta bere lagun *Marimore*k eskulanak egiten erakutsiko diete gaztetxoei, eta astero lantxo berri bat egin beharko dute euren ikasleek **ttipi-ttapa-telebista**ren aitzinean. Lagun edo senide bati bidaltzeko zorion-postalak, panpinen karetak, behiak... Denetarik egiten ikasteko aukera izanen da *Marimore* saioan. Horrekin batera, marrazki bizidunen tartea izanen da ikusgai; *munduko futbol txapelketaren marrazki bizidunek* hasiko dute **ttipi-ttapa-telebista**ren udako itzulia.

**ZOZKETA IKUSGARRIAK**

Eta ez hori bakarrik. Zozketa itzelak ere eginen dira parte-hartzaileen artean: Sendaviva parkera joateko sarrerak, Donostiako Aquariuma ezagutzeko sarrerak... Ikasturtea bukatu orduko zeregina izanen dute, beraz, ttikienek.

## DISKAK




*Itzulera kapsularik gabe espaziora bidalitako azken zakurrak*

**KASKEZUR**

*Itzulera kapsularik gabe espaziora bidalitako azken zakurrak*. Horrela du izena Kaskezur taldearen lan berriak. Rock estiloan oinarritutako 10 kantuz osatutako diskoa da, baina euren hitzetan *«denek dute bertze estiloetako puntu bat»*. Bi baztandarrek, Doneztebeko batek eta sunbildar batek osatzen dute taldea: Iñigo Beltzunegi elizondarra (gitarra eta koroak), Ainara Ibarra sunbildarra (baxua eta koroak), Luismi Gartzia doneztebarra (bateria) eta Ion Mindegia Petrirena elizondarra (ahotsa eta gitarra). Web orria ere badute (*www.kaskezur.com*) eta abestiak hortik jaisteko aukera eskaintzen dute. *Ipurdizulojalea*, *Itxurak*, *Baratxuria*, *Justizia*, *Romeo Ta Julieta*, *Egiaren saminha*, *Tipo inutil bat naiz*, *Paisaiak marrazten*, *Borrokalari abila* eta *Gizon euskaldunaren irauitza* dira abestien izenak.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (ekainaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea** (19 kilo): 21,00 € (=)

**Zerri gizena** 1,275 € kiloa. (+0,045)

**Zerramak:** 0,510€ Kg/bizirik. (+0,025)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 4,01 (=)
**1.koa** 3,71 (=)
**2.koa** 3,05 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 4,11 (=)
**1.koa** 3,81 (=)
**2.koa** 3,15 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 198,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 3,10/3,20
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,70/6,50
8-10 kilokoak: 4,80 /5,30

## JAKIN BEHARREKOAK

# Zenbateko gastua ekarriko digu etxean Lurreko Telebista Digitala paratzeak?

2010eko apirilaren 3rako iragarria dago itzalaldi analogikoa

Urte guttiko kontua da, 2010eko apirilaren 3rako aurreikusia baitago itzalaldi analogikoa. Ordutik aitzinera telebista digitala baino ez da nagusituko. Gaur egun daukagun telebista analogikoaren teknologia dela eta, programa bakarra transmititu daiteke UHF kanal bakoitzeko. Sistema digitalak, berriz, aukera hori aunitz zabalduko du. Irudiak eta soinuak kalitate haundiagoa izanen dute; telebista emisio kopuru handiagoa izanen da eta malgutasun handiagoa emisio eta eskainitako zerbitzu gehigarrietan.

Urteen joanean seinale digitala aunitz garatu da, eta gaur egun telebista digitalaren bortz modalitate daude. Horietako bat da Lurreko Telebista Digitala edo LTD. Edukien transmisioa ohiko antena, kable konexio edota satelite baten bidez eginen da. LTDak nahi den ordutegian eta nahi den edukia nahi denean ikusteko aukera ematen dio erabiltzaileari.

Telebista digitala ikusteko, ordea, hargailua edo errezeptorea beharrezkoa da, deskodifikatzailea, alegia. Informazioa deszifratu egiten duen aparatua da deskodifikatzailea.

Gaur egun saltzen diren telebista plasma edo LCD erakoek eurek barrenean oinarrizko deskodifikatzailea daramate. Baina horrek eskaintzen duena ez da guztiz osoa. Halakoek orotariko kateak ikusteko aukera bakarrik ematen dute, nahiz eta analogikoan baino aukera gehiago egon. Oinarrizko deskodifikatzailerik ez dutenentzat, erran, edozein denda elektronikotan aurki daitezkeela, 30-70 euroren artean salgai.

Horregatik, zerbitzu interaktiboak nahi dituenak eta programazioa berak aukeratu nahi duenak, edota ordutegia edo erosketak kate horien bidez egin nahi dituenak deskodifikatzaile interaktiboa beharko du. Halako aparatuak garestiagoak dira konplexuagoak direlako. 100 eurotik hasita, eskaintzen duten zerbitzuaren arabera, 500 edo 600 eurora bitartean aurkituko ditugu dendatan.




2010erako Lurreko Telebista Digitalak orain arteko telebista tradizionala ordezkatuko du.

## LIBURUAK




*Abaraxka*
**Asel LUZARRAGA**
*TXALAPARTA, 2008*

Liburu hau giza abaraska moduko bat da. Bertako pertsonaiak euren bizitzari zentzua emanen dien zerbaiten bila dabiltza munduan barna. Bakoitza leku edo eta obsesio batetik abiatu arren, inguruko protagonistekin elkarlotuko du bere istorioa, bizitzan aitzinera joan ahala elkarren kide, arerio, maitale edo jazarle bilakatuz. Azken finean, abaraska honen gela bakoitzaren pareta argizari geruza mehe bat baino ez da. Asel Luzarragak bere laugarren eleberria plazaratu du: *Abaraska*. Bederatzi kontakizun daude bertan, hari mehe batek lotuta, hari espaziala gehienetan. «*Jateko edo edateko toki batean hasten da kapitulu bakoitza eta, bukatu ere, jateko edo edateko tokiren batean bukatzen da, non hurrengo atalekoa pertsonaiaren bat dagoen*». Bederatzi istorioak hagitz desberdinak dira eta bakoitzeko ahotsak ere bai.

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

### BESTAK

**DONEZTEBE**
**Ekainaren 27tik uztailaren 1era,** San Pedro bestak.

**ERRATZU**
**Ekainaren 27tik 30era,** San Pedro bestak.

**LESAKA**
**Uztailaren 4tik 10era,** Sanferminak. Xehetasun gehiago erdiko gehigarrian eta 18. orrialdean.

**AZPILKUETA**
**Uztailaren 6tik 10era,** Sanferminak. Xehetasunak 30. orrialdean.

**SENPERE**
**Ekainaren 27tik uztailaren 1era,** herriko bestak.
**Uztailaren 11tik 13ra,** Amotzeko bestak.

**ITUREN**
**Uztailaren 18tik 21era,** herriko bestak.

### KONTZERTUAK

**LESAKA**
**Ekainaren 25ean,** perkusio, saxofoi, eskusoinu eta trikitixa ikasleen kontzertua. 17:30ean Onin errekaren gainean. Musika Eskolak antolatuta.

### FERIAK

**SARA**
**Uztailaren 13tik aitzinera,** hilabetean behin 40 bat saltzaile bilduko ditu feria. Xehetasunak 33. orrialdean.
**Uztailaren 3tik hasita,** ortzegunero merkatua. Xehetasun gehiago 33. orrialdean.

**ELIZONDO**
**Uztailaren 26an,** Baztan-Bidasoako artisauen feria, Foruen Plazan. Goizetik eguerdira bitarte.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

# MERKATU TTIKIA

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA
301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA
401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA
501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK
801. Agurrak

andueza

NARBARTE:
-85m2 ko pisua. 20m$^2$ko garajea. 100m$^2$ko ganbarekin.
30.500.000 Pzta

GAZTELU:
- Bi familiako etxebizitza salgai. 300m$^2$-ko lorategiarekin. 42.000.000Pzta

ORONOZ:
- Estreinatzeko dagoen apartamendua salgai. 150.000€

- 140m2ko pisua salgai 120.000€

- Estreinatzeko dagoen 115m$^2$ etxebizitza bateko beheko solairua salgai. Lorategiarekin 210.000€

- Autoentzako garajea 30m$^2$. 22.000€

ELIZONDO:
- 130m$^2$ko 3 txalet salgai. Solairu bakarrekoak, eskailerarik gabeak. Oso erosoak. 400m$^2$ko lur eremuarekin.

LEGASA:
-LEGASA. 88m$^2$ko pisua salgai. 3 logela, komuna eta 3 balkoi. Orain dela urte bat berritua 28.500.000Pzta

BASERRIAK ERE SALGAI

T. 948 23 88 16
M. 620 20 87 87
www.habitat24.com/andueza

Baztango
promoción inmobiliaria

AUKERAK:
BERA: 73m$^2$ko pisua, 138.000 euro.
LESAKA: 88m$^2$ko pisua, 138.000 euro.
NARBARTE: 80m$^2$ko pisua, 138.000 euro.
ELIZONDO: 60m$^2$ko pisua, 126.000 euro.

BIGARREN ESKUKOAK:
BERA: Herrigunean pisuak, egoera onean eta igogailuarekin.
BERA: 504 m$^2$, 530 m$^2$ eta 120 m$^2$ko etxeak, lurrarekin.
LESAKA: Herrigunean 80 m$^2$, 88 m$^2$, 109 m$^2$ eta 218 m$^2$ko pisuak.
ETXALAR: Herrigunean 189 m$^2$ko pisua, lurrarekin.
SUNBILLA: Familia bakarreko 308 m$^2$ko eta 110 m$^2$ko etxebizitzak, biak lur eremuarekin.
DONEZTEBE: Herrigunean 72 m$^2$ko pisua eta bajera.

LUR EREMU URBANOAK:
BERA, ETXALAR, SUNBILLA eta GAZTELUn.

ESKARI HAUNDIA IZATEAGATIK
ERRENTAN HARTZEKO PISUAK BEHAR DITUGU

AHOLKULARITZA JURIDIKOA
HIRIGINTZA PLANGINTZAK
LUR EREMUEN KUDEAKETA
BALORAZIOAK

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552
Faxa 948 630106

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 80.000 metro'ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BULDAIN
INMOBILIARIA
Leitzan:
Azpikoerrota baserria 1000m$^2$ lur eremuarekin salgai.
240.000€
Amazabal, 37 behea • LEITZA

630 948271

## ETXEBIZITZAK

### 101 Saldu

**LESAKA.** 229 m$^2$ko familia bakarreko etxearen **proiektua**, lurrarekin eta lizentziekin salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, ur zikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. ☎678 526091.



**ZUGARRAMURDI.** Bi familientzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m$^2$koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jangela, itxitako garajea. 600m$^2$ko lorategia. 295.000euro. ☎615 744433.

**DONEZTEBE INGURUAN.** Etxe adosatu polita salgai. Sartzeko prest. ☎666044176.

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua eta aparkalekua. 200.000euro. ☎606 586709.

**GAZTELU.** 50 m$^2$ko pisua salgai. 2 logela, sukaldea-bainugela eta trastelekua. 138.000euro. ☎620 345175.

**DONEZTEBE.** 100 m$^2$ko pisua salgai Zazpigurutze auzoan. ☎639 184210.

## ETXEBIZITZAK

### 103 Errentan emateko

**TWIN PEAKS.** Familia euskaldun batek estudio bat errentan emanen luke epe motzetarako. San Frantziskoko Unibertsitatearen ondoan, leku lasaia eta autobus geltokitik hurbil. Harrera pribatua, bainugela, hozkailua, ohe-sofa, telebista... *aupasf@gmail.com*

**EXPO ZARAGOZA.** Hiri erdian dagoen pisu batean logelak errentan emateko. ☎656 406645.

**BERA.** Herri erdian pisua errentan emateko. 3 logela, berokuntza eta egoera onean. ☎617 024325.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 Salgai

**LEITZA.** Sagastimarrea Kooperatiban garajea salgai. Itxia eta bi lehio dituena. ☎619 486276.

**LESAKA.** 20 m$^2$ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**DONEZTEBE.** Herrigunean 135m$^2$ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Leitzako errepidearen eta Urrotzerako errepidearen bidegurutzean. Aparkalekuarekin. ☎687 736969/948 451783.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 Errentan emateko

**DONEZTEBE.** Elizagibela karrikan 75 m$^2$ko lokala errentan emateko. ☎646799828.

## LANA

### 301 Eskariak

**LESAKA.** 38 urteko emaku-


Harridura bila bazabiltza, zure lurraldean aurki dezakezu
Erdialdeko Beste Berrikuntza Turistikoak
Ardoaren Bidea
Metautengo Boilurraren Museoa
Arellanoko Museo Hiribildua
Nafarroako Erresuma
Nafarroa
Lur Anitza
www.turismo.navarra.es • tel.: 848 420 420

# deskontuak
DENDA HAUETAN EROSTEAGATIK

ZALDUA • ELIZONDO/DONEZTEBE
%10eko deskontua, produktuetan

OSTARGI Optika • BERA
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

JAIONE Tindategia • DONEZTEBE
%10eko deskontua, 12€tik gorako gastuan

ZELA Kirol-denda • BERA
%5eko deskontua

MENDAUR Pentsuak DONEZTEBE
% 5eko deskontua (zakurrena, katuena...)

ZALAIN MOTOR Tailerra • BERA
%5eko deskontua errekanbioetan

## SARIDUNAK:

1 5 liburu (Ibaizabal): Lourdes Indakoetxea (Doneztebe)

2 Nafarroa abentura (BKZ) 2 sarrera: Rakel Arlegi (Lesaka)

3 Baztandarren Biltzarrako kamiseta eta zapia: Andoni Lasaga (Bera), Ana Erasun (Hendaia)

4 Oninart 2 kamiseta: Leire Portu (Lesaka)

5 Txapela buruan 2 kamiseta: Josune Etxebeste (Sunbilla), Jaione Otxandorena (Sunbilla)

6 Ziztadak 2 mahai-joko (Argia): Ainhoa Etxebeste (Sunbilla), Nekane Unsion (Legasa)

7 Argia aldizkariaren 6 hilabeteko 2 harpidetza: Aitor Arotzena (Lesaka), Joseba Olagarai (Etxalar)

SENDAVIVA 4 sarrera: M. Josune Iturzaeta (Arizkun)

AQUARIUM 2 sarrera: Saioa Mitxelena (Bera)

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58 telefonoan



# ttipi txartelarekin
**beti irabazten da!**

# 8 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu astelehenetik ostiralera 09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58



1 ZORTZI LIBURU

Lote 1

erein
www.erein.com



NAFARROA OINEZ

Lote 1

2

www.nafarroaoinez.net



KAMISETA

2 Lote

3

www.txapelaburuan.com



4

Sorginak
MAHAI-JOKOA
1 Lote

www.aisia.net



5

Haur eta helduentzat
KAMISETA ETA ZAPIA

2 Lote



6

Haur eta helduentzat
BI KAMISETA

Lote 1

oninart
www.oninart.com

## ttipi saskia

TTIPI SASKIAren ZOZKETAN
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure IZEN-DEITURA **5767**ra



SENDAVIVA

Lote 1
**4 sarrera**
2 heldu+2 haur



Lote 1
**2 sarrera**

AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariumss.com

Zozketan parte hartzeko epea: ekainaren 18tik uztailaren 2ra. Irabazleen izenak uztailaren 10eko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kostea 1,20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttiparen fitxategian gordeko dira aurrerantzean izaten diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztapenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.